



“Euskal Herriak oso zoriontsu egin nau, banoa pozik”

Jose Mari Esparza Zabalegi

14-20. orriak

#2.854 | 2024/01/14 | 4,00 €



Zer behar du minbizia duen pertsonak?

25 | (MIN)BIZI KONGRESUA



Gazako palestinarrak kanporatu nahi ditu Israelek

34 | NAZIOARTEA



Zine ekoizleak formatzeko lan-saioak Euskal Herrian

44 | ANDER SAGARDOY

(H) ILBELTZA

euskal nobela beltzaren astea

Baztan
2024ko ilbeltzaren
22tik 28ra

ARGIA



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

Iritziak

- 21 | ASIER BLAS MENDOZA
- 22 | ANE ABLANEDO
- 23 | AHOZTAR ZELAIETA
- 23 | EVA PEREZ-PONS
- 24 | JON ALONSO

Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 42 | DENBORAREN MAKINA
- 43 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO
BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

44 | **ANDER SAGARDOY**

Irusoin ekoiztetxeko langilea eta Sumendi ekoiztetxeko jabea den hau elkarrizketatu du Lander Arretxeak. Ekoizlearen lana zer den argitu du: film luzeak eta laburrak alde ekonomikotik ikusten ditu, bulegotik.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

2024ko europa neoliberalak, Schäubleren politika austerizida du ipar

Urko Apaolaza

14 | PERTSONAIA | JOSE MARI ESPARZA

“Borrokaren beharra transmititu nahi dut, zerbait berria sortuko da, beti sortu da”

Reyes Ilintxeta

25 | OSASUNA | MINBIZIAREN GINKANAN

Pertsona zelulen aurretik jartzeko aldarria

Leire Artola

34 | NAZIOARTEA | PALESTINA-ISRAEL

Nabka 1948: historia errepikatuko da Gazan?

Xabier Letona

52 | ARGI-KONTRA | DORLETA KORTAZAR

“Ipuinek aukeratzen gaituzte kontalariak, eta ez guk ipuinak”

Aitziber Zapirain

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Izaro Villarreal, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Manex Moreno, Mattin Azpiroz, Mikel Garcia, Onintza Irueta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
Olatz Korta

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuz

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoko

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,

31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuontzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

90 egun eta gau

Hiru hilabete bete berri dira lurretik, itsasotik eta airetik palestinarrek hiltzeari ekin zionetik erakunde sionistak. Ia 23.000 pertsona –horietatik 10.000 inguru haurrak– hil egin dituzte; beste 7.000 lagun desagertuta edo hondakinen azpian daude. 310.000 eraikin erabat ala partzialki suntsitu dituzte, eta Gazako Zerrendako biztanleen %85ak etxea utzi behar izan du. Mendebaldeko herrialdeek beste alde batera begira jarraitzen dute, beren burua islatuta ez ikusteko sarraskiaren ispiluan. Israelgo faxismoaren aurkako borrokan beren inplikazio zuzenagatik Yemen, Iran eta Hezbolak aparteko aipamena merezi dute, baina Ekialde Hurbiletik kanpo Hegoafrika da salbuespen duin bakarrenetakoa. Haiei esker, datozen egunetan Israelek aurre egin beharko dio NBEko Nazioarteko Justizia Gortean genozidioagatik jarritako salaketari.

📍 Soldadu sionistak tanke jaurtigailak prestatzen Gazako mugan. **GETTY IMAGES**

🔪 **AXIER LOPEZ**







Bizitzaren garestitzeak etenik ez: argindarra, gasa, udal zergak eta autobideak, garestiago

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Hego Euskal Herrian, egun indarrean dagoen neurri mesedegarri batek soilik jarraituko du aplikatzen, gutxienez ekainera arte: oinarriko elikagaiei BEZik ez ordaintzea.

Urte berriarekin batera, erakundeek berrikusi egin dituzte zergak eta neurriak. Puntuz puntu aztertuko ditugu Hego Euskal Herriko herritarren poltsikoetan izango duen eragina.

ARGINDARRA ETA GASA

Datorren astean, urtarrilaren 11n iraungiko da Espainiako Estatuak argindarraren eta gasaren BEZari ezarritako neurri mesedegarria. Argindarraren kasuan, %5etik %10era pasatuko da -2021eko ekainera arte %21ean egon da-. Gasaren BEZa, berriz, %10etik %21era igoko da era progresiboan, apirilera bitartean.

UDAL ZERGAK

Udal gobernu bakoitzak berrikusi ditu berari dagozkion zergak. Hiriburuen artean, zereginak egiteko falta dena Iruñea da. Zentsura mozioaren eraginez, da-

torren urterako udal zergak onartzeko plenoa bertan behera utzi zuen Cristina Ibarrolak, eta iradoki alkate berriari dagokiola erabaki horiek hartzea.

Gasteiz izango da zergak igoko ez dituen hiriburu bakarra; izan ere, udal gobernuak %3ko igoera proposatu bazuen ere, ez du nahikoa babes lortu neurria onartzeko. Hiriburuen artean, Donostiak igo ditu gehien zergak: ura, saneamendua, zaborrak eta TAO %5 garestitu dira, eta Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga eta Ibilgailuena %4. Bilbon, bestalde, tasa guztiak %3 garestitu dituzte.

Bizkaian, nabarmentzekoa da uraren prezioak izan duen igoera. Ur Partzueragoak erabakita, %9 garestitu da tarifa.

AUTOBIDE GUZTIAK ERE GARESTIAGO

Urtarrilaren 1ean hasi dira igoerak aplikatzen autobide guztietan. Bakoitzak bere tarifa igoera izan du; denak %5 eta %6,65 garestitu dira.

Esaterako, Gasteiz-Bilbo autobidearen bidesaria 25 zentimo garestitu da; 6,5 euro balio ditu orain. ●

Petrolio eta gas enpresen irabaziak

URKO APAOLAZA AVILA

BP, Shell, Chevron, ExxonMobil eta TotalEnergies enpresek 100.000 milioi dolar (90.100 milioi euro) banatuko dituzte euren inbertitzaileen artean, inoizko ordainsari handiena. Ukrainako gerraren ondorioz, 2023 urtean etekinen errekorra gainditu dute burtsan kotizatzen duten petrolio eta gas enpresa erraldoiek.

The Guardian egunkariak egin du publiko datua, "erregai fosilen irabazien-gatik gero eta haserre handiagoa dagoen testuinguru batean", azaldu du. Izan ere, ordainsari hori emango dute, petrolio konpainiek etekin handiak lortu dituztenean "Ukrainako gerrak merkatuan eragindako gorabeherengatik", dio egunkari britainiarrek.

Adituek aurreikusi dute dibidenduen eta akzioen salerosketen ondorioz seguruenik aurreko urteko ordainsariaren diru-kopurua gainditu eta errekorra hautsiko dutela -oraingoz 2023ko lehen hiru hiruhilekoen datuak dituzte-.

AURRERA IHESA

Zergatik banatuko dute hainbesteko dirutza? Adituek diotenez petrolio konpainiak gero eta errekonpentsa handiagoak ari dira eskaintzen inbertitzaileak sektoretik atera ez daitezela, haien kontrako "kanpo presioa" handitzen ari baita. Besteak beste, aktibistek batzar orokorretan egindako ekintza ikusgarriak edo mundu mailako kanpainak aipatzen ditu *The Guardian*-ek. Aurrera ihes bat da.

Egunkariaren arabera, "zenbait talde ekologistak uste dute ordainsari horiek erabiltzen ari direla inbertitzaileak distraitzeko petrolio-industriaren kontrako erreakzio publikotik eta erregai fosilekin amaitzeko gobernu politiketan behar diren behin betiko aldaketetatik".

Izan ere, ordainsariena ez da, tamalez, erregai fosilei loturiko errekor bakarra izan. *The Guardian*-ek gogorarazi du inoiz erregistratu den urte beroena ere izan dela pasa berri duguna, "klimatek larraldiak fenomeno meteorologiko muturrekoak eragin baititu". Eta hori herritar guztiok ordaindu beharko dugu. ●

Sinetsi



UXUE APAOLAZA LARREA

Urte berri egunean denek missak dirudigu, desio on asko iristen zaizkigu Telegramera eta Whatsappera, eta beste hainbeste, edo gehiago, bidaltzen ditugu. Etxeko lan asko igorri dira aurten ere, baita poema forman ere. Gora-gora feminismoa, matxinada, euskara, maitasuna, askatasuna, errebel-dia... askatasuna esan dut? (Batzuek hitza bazekitenik ere). Zer gerra amaitzea nahi dugun urtero berritu behar da, Ukrainatik Palestinara, "gerra guztiak" generikora jo gabe. Eta adinarekin, osasuna ere hasten da lekua hartzen. Txantxa tonuan ari naiz, eszeptikoarena egiten, baina, berez, zerbaitetan sinetsi beharra dago, ez hainbeste urtea hasteko, egunak abiatzeko baizik.

Urtebete baino ez dute iraun behar desirek. Ezin du hain zaila izan motibazioren bat aurkitzea. Eta, berez, pixkanaka, egun bateko iraupena badute nahikoa. Azken aldian hiruzpalau aldiz atera zait inguruan Italo Calvino, eta bere ezinezko hirien liburua. Marco Polo zubi bat deskribatzen ari da, harriz harri, eta galdetzen diote "baina zein harrik eusten dio zubiari?". Marcok erantzun zion zubia ez zuela harri honek edo besteak sostengatzen, eratzen duten arkuak baizik. "Orduan, zergatik ari zara harriei buruz? Inporta zaidan bakararra arku da". Eta hemen dator komeni zaidan erantzuna: "Harririk gabe ez dago arkurik". Eta ez da nahikoa harri lanera iritsi beharra. Edo bai, zer zubi eraiki nahi den ihar bat, sendo bat, alai bat, *kolgantea*...

Hala ere, pentsatzen dut miss baten helburua galdera mardarikatura iritsita ahalik eta gutxien esatea izango dela, ahalik eta gutxien adieraztea. Eta, berez, lortzen dute ezer ez esatea: horretarako dira hitz handiak. Nik ere berdin, ez dut ezer adierazi: ia "maite zaitut" esan banu bezain gutxi. Zertan sinestea da hori? Hau ere ez dakit zerbait den. Nik, aurten, zuri sinetsi nahi dizut. ●



Osasuna

Osasunbideko Larrialdi Zerbitzuak kolapsatu direla salatu du ELAK. "Aurreikuspen eza" eta "antolaketa eskasa" leporatu dio zuzendaritzari sindikatuak. Osakidetzan ere, handia izaten ari da anbulatorio eta larrialdietako kolapsoa.

Musukoa

Osasun zentro eta zentro soziosanitarioetan musukoaren nahitaezko erabilera itzultzea eskatu du Espainiako Osasun Ministerioak, urtarrilaren 8an erkidegoetako osasun agintariekin egindako batzarrean. Erkidego bakoitzak du azken hitza.

Nazioartea

Urtarrilaren 1ean Japoniako mendebaldeko kosta kolpatu zuen 7,6 graduko lurrikarak (1etik 12rako tartean neurtzen da, Richter eskalan) dozenaka pertsona hil eta beste hainbat zaurituta utzi ditu. Etxebizitza ugari ere suntsitu zituen.

Beste 'Prestige' bat Galiziako kostaldean?

URKO APAOLAZA AVILA

Duela hainbat astetatik etengabe ari dira azaltzen plastikozko botatxoak Galiziako Rias Baixaseko hondartza eta arroketan. Kargamentua abenduaren 13an galdu zuen itsasontzi batek Portugalen eta geroztik kostaldeko naturguneei ere eragiten ari da. Ekologista taldeek salatu dute administrazioa geldirik dagoela hondamendiarren aurrean eta boluntarioak ari direla botatxoak jasotzen.

"Marea zuria", hala deitu diote azken asteetan Galiziako Rias Baixasen izaten ari den hondamendi ekologikoari. Abenduaz geroztik milioika plastikozko botatxo zurik, 5 milimetro eskasekoak, hango hondartza eta kostaldeak zikintzen ari dira etengabe. 25 kilogramoko zakutan bilduta zeuden pellet-ak dira botatxo ia mikroskopikoak -erabilera ugari duen materiala-.

Noia Limpak jakin duenez, abenduaren 13an itsasontzi batek bere kargamentuaren sei edukiontzi galdu zituen Portugalen, Viana do Castelo inguruan, eta edukiontzi oso bat botatxo horiek daramatzaten zakuz beteta zegoen. Oraingoz 52 poltsa jaso dira, baina poltsa gehiago azaltzen ari dira egunetik egunera. Zaku asko hautsita agertu dira eta barruko *bolina*-k toki guztietan barreiatuta. Argi ultramorea estabilizatze-ko material gisa identifikatu dute plastikoko hori, oso arina, eta behin barreiatuta "ia ezinezkoa garbitzeko", diote.

Noia Limpak sare sozialetan zabalduak bideo batean azaldu duenez, botatxoak toxikoak izateaz gain "iman modukoak dira" eta beste substantzia toxikoak xurgatzen dituzte. Gainera, arrain, hegazti eta krustazeoek arrainen arrautzekin konfunditu eta irensten dituzte; azkenerako urdaila botatxoak bete eta gosez hiltzen dira animaliak.

Bestetik, substantzia toxikoak arrainen ehun lodietan ere pilatzen dira eta ondoren gizakiok jaten ditugu: "Okerrena da ez direla desegiten, nanopartikuletan banatzen dira eta itsas elikadura kate osoan barreiatzen dira". ●

ANALISIA



Voxeko euskal anti-sistemak

ZIGOR OLABARRIA OLEGA

Eta, zer giro ostegunari begira?, galdetu nion A30eko grebaren antolakuntzan ari zen militante feministari. "Egia esan, burua ikastetxeko gatazka batean izan dut azkenaldian", erantzun zidan larritasun aurpegiarekin.

Vox alderdiaren Solidaridad sindikatuak greba orokorrera deitu zuen A24an, PSOEek alderdi politiko katalanekin adostutako Amnistia Legearen aurkako Madrileko protesten testuinguruan: "Irmo arbuizatzeko murrizketa sozialak, lan-eskubideen ezabatzea eta langileen arteko desberdintasun politikak, gertatuko direnak separatismoari eta Espainiaren batasuna hautsi nahi dutenei egindako kontzesioen babesean". Greba horrekin bat egitekoa zen nire solaskidearen ikastetxeko geletako bat. Eta hor ari ziren irakasleak, ikasleekin hizketan, atzera egin zezaten konbentzitu nahian, greba horrek eta eskuin muturrak langileen eskubideen babesarekin zerikusirik ez zutela ulertarazi nahian. "Ezin duzu imajinatu zein muturreko jarrera duten euskararen eta gizarte prestazioen aurka", azaldu zidan asaldatuta. Are gehiago asaldatu nintzen ni hurrengo datuarekin: Goi Mailako Heziketa Ziklo bateko Gizarte Integrazioko ikasleek ari zen: hau da, etorkizunean baztertutako herritarrekin lan egingo duten pertsonak.

Horrek guztiak adierazten zuenaz hausnartzen aritu ginen minutu batzuek. Eskuin muturrak bere mezu eta baloreak jendartean zabaltzeko duen gaitasun handia, gazteen kasuan bereziki sare sozialen bidez. Askotan errepikatzen dugunaren aurka, 'Espainian ez bezala' Hego Euskal Herrian eskuin muturreko birusetik libre garen uste ustela, eta adi egon beharra. Eta, batez ere, ezkerrean gabeziak uzten dituela agerian.

Gazte horiek sistemarekiko aurkakotasun batetik eta gauzak aldatu nahitik ari ziren pentsatzen eskuin muturraren grebarekin bat egitea, beren burua eskuin muturrekotzat izan gabe ere. Eskuin muturra dute jarrera 'anti-sistema' ren erreferentzia gisa, ez ezkerre. Zergatik? Akaso, batetik, eskuin muturra mezu anti-sistemak baliatzen eta eskuin klasikoak demokrazia formalaren oinarriak auzitan jartzen ari den garaiotan, ezker parlamentariak 'demokraziaren' eta 'ongizate estatuaren' apurrak salbatzeko ahaleginean jartzen duelako indarra, horien aurreko alternatibetan baino. Eta, bestetik, posizio eta planteamendu erradikalagoak edo egiazki anti-sistemak dituzten sektore ezkerrietarrek ez dutelako irismen nahikorik herritar 'arrunt' gehienengana heltzeko.

Pentsatu dezagun arrazoiak horiek edo beste batzuk diren, baina, batez ere, indartu ditzagun espazio, iruditeria, alternatiba antikapitalista, antipatriarkal, antikolonialak, nork egokien deritzon lubakitik. Bestela, dagoen eta areagotuko den haserre, beldur eta ziurgabetasunaren aurrean, herritarren gehiengoak eskuinera begiratzen jarraituko du erantzun eta babes bila, nola Espainian, Europan edo Argentinan, hala Euskal Herrian. Eta ezkerrean eskuineko markoak barneratzen jarraituko dugu, indar grabitatorio nagusiak erakarrita. ●

230

ukrainar eta 248 errusiar askatu dituzte urtarrilaren 4an. Orain arteko preso trukaketa handiena egin dute Ukrainak eta Errusiak, Arabier Emirerri Batuek sustatutako akordio bati esker.

“Pilotu automatikoa beti aktibatuta dugu ez heterook; badakizu noiz eta non ez eman eskua edo musu bat mutil-lagunari”

ASIER

23 urteko gaztea mutil-lagunari eskua emanda zihoan Bilbon, eta bi mutil gaztek sudurra apurtu zioten.

ARGIA.EUS (2024-01-08)



17

urteko gazteek gidabaimena izateko aukera dute Frantziako Estatuan, indarrean sartu den araudi berriarekin. Espainiako Estatuan oraindik ez dago zehaztuta araudi berria noiz sartuko den indarrean.

“ABERASGARRIA DA LANGILEAK IKUSTEA LEHEN ALDIZ ANTOLATZEN BELDUR ETA PRESIOEN GAINETIK”

ITSASO ZABALETA

Gasteizko La Vitoriana enpresako langilea. Protestan ari dira, soldatak eta lan-baldintzak hobetzea helburu.

ARGIA.EUS (2024-01-08)

6.486

donostiarrek ezezko botoa eman diote Basque Culinary Center Gros eta Uliako parkeetan ezartzeari. Uliako auzo elkarteak eta SOS Manteo plataformak herri galdeketa egin dute eta 6.948 lagunek hartu dute parte.

“Euskarazko ekitaldiak diskriminatzen ari dira euskaraz ez dakien jendea, baina gaztelaniaz egiten ditugun ekitaldietara biak joan daitezke, euskaraz dakitenak eta ez dakitenak”

XURIÑE PEÑA

Eguesibarreko alkatea (UPN).

2024-01-04



TEKNOLOGIA

Kobazuloetako teknologiak



DIANA FRANCO

Asteburu honetan historiaurreko margoak zeuden kobazulo bat bisitatu dut. Burdin eta manganeso oxidoa erabilia orain dela 30.000 bat urte egindako margoak. Bisita hauek interesgarriak iruditzen zaizkit, gizaki gisa munduan dugun lekua birkokatzeke; aukera dira historia hurbileko "garapena" eta etorkizunean izango duguna birpentsatzen jarraitzeko. Badirudi teknologia ugari zegoela kobazuloetako garaietan: milaka urte iraungo zuten adierazpenak marrazteko teknologiak, kea sortzen ez zuen sua elikatzeke teknologiak, kobazuloen formak erabilia suarekin mugimenduaren ilusioa sortzen zuten proto-zinema teknologiak... Nire egungo burmuinak sorkuntza haietan argitasuna ikusten du, zirrara hormak margotzean, material berriak aurkitzerakoan, suak eragindako irudien mugimenduaren ilusioarekin kontakizunak taldean partekatzerakoan... baina, nire burmuina ez da garai hartakoa, eroso dago egungo bizimoduan, eta, kobetako garaiek esperientzia bat bezala ulertzen ditu. Nire egungo burmuinak ez ditu ulertzen garai hartako hotsa, gauaren iluntasuna, mehatxuak... Ez du ulertzen garai hartako adierazpenak, beharbada, beldurrari aurre egitearekin lotuagoak zeudela, eta babesa aurkitzeko sortu zirela kobazuloetako teknologiak. Egun dugun teknologietako asko ere beharretik sortu ditugu, bizi dugun giroan ahalik eta bizi onena izatearen beharretik, bizitza on horren bila mehatxuetatik babesteko, azken batean, mehatxuek eragiten diguten beldurra murrizte aldera.

Kobazuloen garaietako gizakiek, lurra-ri hain lotuak, babes sentsazioa abstrakzio geruzak sortuz lortzen zuten, dirudienez. Aldiz, egungo gizaki askok, garai honetako lurretik igarotzen garenok lur horrekin harreman zuten asko izan barrik, mundu abstraktuaren balizko ziurtasuna gure eguneko bilakatu dugu. ●

NAZIOARTEA



Iran, Hezbola, Itsaso Gorria... Gerra zabaltzeko arriskua erreal da

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Hiru lurralde dira tentsio gorenean -Hezbolaren bidez Libano, Iran eta Itsaso Gorria- eta beste batzuk ere sartu daitezke dantza makabroan aurki: Qatar, Turkia...

Iran: urtarrilaren 3ko atentatuarekin tentsioa gora

Urtarrilaren 3an Irango Kerman hirian buruturiko atentatuak giroa are gogorrago bihurtu du. Qasem Soleimani Irango Guardia Iraultzailearen buruzagiaren heriotzaren laugarren urteurrena gogoratzeke ekitaldian bi lehergailu zartarazi eta ehun lagunez gora hil eta beste 210 bat kolpatu dituzte. AEBek hil zuten 2020an Soleimani, drone bidez, eta orduz geroztik urtero dira milaka herritar batzen bere hilarriaren inguruan. Estatu Islamikoak hartu du bere gain eraso hilkorra, baina Israeli eta AEBei lotu diete eraso Irango buruzagiek.

Hezbola: erasoen indarra areagotzeko gai

Urtarrilaren 2an Libanoren hiriburuan eraso egin zuen Israelek, eta Hamasen adar politikoko buruzagiorde Saleh al-Aruri eta taldeko beste sei goi kargudun hil zituen. Saleh al-Aruri zen su-etenari buruzko negoziaketetako Hamasen solaskide nagusienetarikoa. Hezbolaren kontrolpeko eremu batean gertatu da

erasoa. Hezbolaren idazkari nagusi Hassan Nasrallahak ondokoa adierazi zuen: "Oraingoz fronteari mugatzen gara, modu kalkulatu gabiltza, (...) baina etsaiak Libanoren aurkako gerra abiatuz gero, borroka eramango genuke mugarik gabe eta mugen gaitetik". "Entrenaturiko eta armaturiko 100.000 borrokalaria" ditu Hezbolak, Nasrallaharen erranen arabera.

Itsaso Gorria: AEB eta Israel erasotzeko gune estrategikoa

Huthi Yemengo matxinatu xiiak ere armaturik dabilta Israelen aurka eta Palestinaren askapenaren alde. Hain zuzen, misilak eta droneak jaurtitzen dabilta Itsaso Gorritik barrena Israelerantz doazen ontziei. Erantzun gisa, Prosperity Guardian nazioarteko itsaskoalizio militarren osaketaren berri eman zuten abenduan AEBek.


Qatar, Turkia... Horiek ere jomugan hartzeko arrisku arduragabea

Libanoz gain, beste herri batzuetan ere bideratuko ditu Israelek erasoak? Baliteke. Funtsean, duela hilabete zabaldu zen Israelgo barne-segurtasunerako buru Ronen Bar-ek adierazitakoa: "denetan" erasotu dezakete la Hamas, baita "Libanon, Qatarren edota Turkian ere". Egia izanez gero, gerra Ekialde Hurbilera zabaltzeko arriskua are errealagoa litzateke. ●

Gure bizitzako 15 urte pantailaren aurrean



Adin bakoitzean batez beste pantailaren aurrean igarotzen ditugun ordu eta minutuak, eguneko.



Iturria: France point BEH eta beste hainbat iturritan oinarrituta.

Kultura

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi Donostiako politikari, hizkuntzalari eta idazlea hil zela hamabi urte beteko dira urtarrilaren 14an. Udal Liburutegi Nagusiari bere izena jartzeko eskatuko du Txillardegi Udal Liburutegia Herri Ekimenak, urteroko ekitaldian.

Oroimen historikoa

Gasteizko eliza bat birmoldatu eta Martxoaren 3ko Memoriaren Gunea sortzeko 600.000 euro hitzartu zituen EH Bilduk Espainiako Gobernuarekin, baina Eusko Jaurlaritzak ez du diru-partida erabiliko; argudiatu du ez dela eraikinaren "jabe ezta onuradun ere".

Euskara

Orkoiengo Udalak (PSN) indarrean jarri nahi duen euskararen ordenantza berriak euskararen erabilera murrizten duela diote bizilagunek; izan ere, testu berriak euskara "ahal den heinean" soilik erabiliko dela dio. Neurri berriak proposatu dituzte herritarrek.

2024KO EUROPA NEOLIBERALAK, SCHÄUBLEREN POLITIKA AUSTERIZIDA DU IPAR

Europar Batasuneko Ekonomia eta Finantza ministroen Ecofin kontseiluak arau fiskal zorrotzagoak ekarri dizkigu opari urte berriarekin. Pandemia ondorengo norabidea aldatu eta berriz ere inbertsio publikoa txikitzea eta herrialdeek murrizketak egin behar izatea ekarriko du politika *austeriziden* itzulerak, Wolfgang Schäuble ministro alemaniar hil berriak 2008ko krisiarekin inposatutakoaren bidetik. Beste aukera galdu bat sistema sakonean aldatzeko.

URKO APAOLAZA AVILA

Berlin, 2015eko udaberria. Mahaia-
ren alde batean Yanis Varoufakis,
greziar Finantza ministroa, Euro-
par Batasuneko bileretara larruzko ja-
kaz eta motorrean joateagatik soilik ez,
Greziako zorraren krisi betean Troika-ri
hortzak erakusteagatik ere ezagun egin
dena. Beste aldean, Wolfgang Schäuble
alemaniar Finantza ministro boteretsua,
austeritate politiken bultzatzaile nagusia.
Greziak 2009tik darama zorra zorraren
bidez estaltzen, Europako Batzordeak,
Europako Banku Zentralak eta Nazioar-
teko Diru Funtsak exijitutako murrizketa
hiltzaileak ezartzearen truk, baina bote-
rera iritsi berria den Syriza alderdi ez-
kertiarrek gupil zoro horrekin amaitu
nahi du. Orduan, Schäuble Michel Sapin
homologo frantziarrari serio begira, hau
dio bekokia mugitu ere egin gabe: “Ezin
da onartu hauteskundeek politika eko-
nomikoa aldatzea”. Ezezko borobila, *nein*.

Varoufakisek *Adults in the room* (Hel-
duak egongelan, 2017, Penguin) liburuan
kontatzen du pasarte hori, ekonomialari
greziarrak Europako establishment-aren
kontra egindako borrokari buruzko lan-
nean. “Ez zirudien kezka handirik sortzen
zionik greziar programa ezin zela bete
jakiteak –jarraitzen du liburuan-. Wol-
fgang Schäuble hauteskundeek ez zutela
garrantzirik pentsatzeak baino, harritu
ninduena izan zen hori bera onartzean
inolako eskrupulurik erakutsi ez izana”.

Gabon hauetan etxe batzuetan xanpain-
naz eta beste askotan ardo merkearekin

topa egiten genuen bitartean, abendu-
aren 26an hil da Schäuble, 81 urterekin eta
minbizia zuela. Argitzerako kafea azkar
hartu behar duen langile jendeak apenas
egingo zion kasu mugikorrek albisteari:
abizen ahoska ezinezko mandatari euro-
par bat gutxiago... eta zer? Baina Varoufa-
kisek ondo pentsaturik zeukan beretzako
epitafio birtual bat: “Historiak gogor epai-
tuko du, baina ez bere politikari eta proiektu
suntsitzaileari men egin zietenak baino
gogorrago”, idatzi du bere blogean.

Schäublek pertsonifikatu zuen inork
baino hobe 2010eko hamarkadan Euro-
pako herrialde ortodoxoek, bereziki Ale-
maniak, inposaturiko “austeritate” poli-
tika, herritarrak pobretu eta murrizketen
bidez zerbitzu publikoak eraitsi zituen
benetako *austerizidua*. Gero COVID-19
pandemia etorri zen, eta krisi sozioeko-
logiko sakonek sistema hankaz gora ez
jartzeko politika espantsiboak erraztu di-
tuzte europar erakundeek hainbat urtez.
Baina tregoa eskuzabal horren ondoren
“normaltasunera” itzuli beharra dago.

Eta Europa neoliberallean normaltasu-
nak erran nahi du gerruntze fiskal estu bat
jartzea inguruan, hemen bai izan behar
da oso eskrupulosoak, antza. Ecofin Euro-
pako Ekonomia eta Finantza ministroen
kontseiluaren abenduaren 20ko bileran
hartu dute erabakia 27 herrialdeek: berriz
ere, gehienez %3ko defizita eta BPGreki-
ko %60ko zor publikoa eduki beharko
dute EBko kideek, Maastritcheko Itu-
neko “urrezko arauak” dioten moduan.

Ecofinen bileretan herrialde gogorrenen
jarrera nagusitu da, batez ere Alemania-
rena, baina baita Herbehereak, Austria,
Suedia eta Danimarkarena ere.

Hala ere, Bruselan berriz aktibatutako
Egonkortasunerako eta Hazkunderako
Itunean (EHI), “ihes-balbula” edo malgu-
tasun ukitu batez makillatu dute auste-
ritaterako itzulera: BPGrekiko %90etik
gorako zorra dutenek, euren zorra batez
beste puntu bat gutxitu ahal izango dute
urtero; eta %60-90eko tartean daudenek
urtero puntu erdia baino ez. Klausula ho-
rrek ahalbidetu du akordioa, Frantziak,
Espainiak eta Italiak onartu ondoren.

LURRERATZE BRUTALA

Nadia Calviño Espainiako Ekonomia mi-
nistro eta lehen presidenteordeak gida-
tu ditu Ecofinen bilerak ordu txikiak arte
–Espainiako Estatuari zegokiolako Euro-
par Batasuneko presidentetza 2023ko
bigarren seihilekoan-. Europeista amo-
rrotua eta “señoritoen laguna”, Madrilgo
prentsa ezkertiarrek sarritan deskribatu
duen bezala, ministro espainiarrak es-
katzen zuten hori eskaini die Alemaniari
eta bere belatz ordoliberalari. Orain, Euro-
pako Inbertsio Bankuko presidentea-
ren aulkitik begira daukagu.

Berrikitan Calviñok esan du Next Gene-
ration funtsak ezinbesteko izan direla “gure
herrialdea [Espainiako Estatu] berrerrai-
kitzeko”. Beste askorentzat, ordea, pande-
miarekin ezarritako politika fiskalak “pre-
karitatea, txirotasuna eta milioika lagun



NDF

WOLFGANG SCHÄUBLE

Alemaniko Finantza ministro ohia abenduaren 26an hil da. 2008ko krisiaren ondoren Europan inposaturiko austeritate politika eta murrizketen defendatzaile irmoena izan zen. Bera hil baino egun batzuk lehenago, Ecofin kontseiluak arau fiskal zorrotzetara itzultzea erabaki du, askorentzat aukera galdu bat dena pandemia osteko beste eredu ekonomiko bat abiatzeko Europan.

sufrimendua" eragin ditu, Zor Bidegabea Abolitzeko Komitearen (CADTM) webgunean Felipe Milinek idatzi duen gisan.

CADTMeko kideak *Le retour à la normale de l'austérité en Europe* (Austeritatearen normaltasunera itzulera Europan) artikuluan zedarritu ditu Ecofinek harturiko erabakien gako batzuk. Pandemia garaiko azken urteetako neurriak "marko kontzeptual neoliberal" beraren barruan hartu dira bere esanetan: laguntzak enpresa erraldoi gutxi batzuegana baino ez dira iritsi –"europar txapeldunak" deitzen diete hooliganen bufandak jantzita–, mundu mailako merkatuan lehiatu daitezten.

"Austeritatearen bidera itzulita, pandemia garaian aldaketarako sortu ziren aukerei atea itxi zaie –idatzi du Milinek–. 2008ko krisiaren sekuentziarekin ger-

tatu bezala, eredu neoliberalaren azken urteetako krisiak ez gaitu eraman sistemaren sakoneko erreforma batera, are gutxiago hura zalantzan jartzera".


Dioskunez, gaur egungo inflazioaren arazoa ez du gehiegizko likideziak sortu, baizik eta hornidura kateen etenak, eta hortaz, austeritate politikak atzeraldiaren hasiera azkartu baino ez dute egingo. Hedabide ugarian txalotu duten uesteko EHiren malgutasunak, aurrezkiaren erreinu ilunera zenbait herrialdek –tartean Espainiako eta Frantziako Estatuek– egin beharko duten lurreratzea hain "brutala" ez izatea du helburu, besterik ez.

Eta orain, galdera da: diru publiko gutxiagorekin, nola beteko dute hitz emandako Europako Pakto Berdea? Horretarako 620.000 milioi euro beharko direla ziurtatu zuen Europako Batzordeak.


Alderdi berdeek eskatu dute arau fiskal berriek ez eragitea trantsizio energetikora bideratutako aurrekontuei –erregai fosilak gutxitzea helburu dutenei–, baina Calviñoren Ecofineko lagunek ez dute halakorik onartu. *Nein*.

Greenpeaceko Carlos García Paret ekonomialariak ahoibazarririk gabe azaldu du *El Salto*-n: "Huts egin duten errezetekin, finantza ministroak tematuta daude kontu publikoen eta ekonomiaren osasun ona mantentzen, aldiz, ez dute zaintzen ekosistemen eta gizartearen osasuna". 2.0 austeritate "edulkoratura" itzultzea oso albiste txarra da ekologistarentzat.

Wolfgang Schäublek 2010eko hamarkadan hasitako *austerizidio*-aren bigarren kapitulu bat hasiko dugu beraz. Ongi etorri, hau 2024 urtea da, urte "normal" bat Europa neoliberallean. ●



Garrett Light eyewear



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Jose Mari Esparza

IDEIA TRAFIKATZAILEA



BORROKAREN BEHARRA TRANSMITITU NAHI DUT, ZERBAIT BERRIA SORTUKO DA, BETI SORTU DA



Jose Mari Esparza idazle, editore eta ekintzaile menderaezinak bere lanerako txokoan hartu gaitu, Alaffaylla Kultur Elkarte eta Txalaparta argitaletxearen sorlekuan, liburuz inguraturik. Gaztetan 20 urtez aritu zen Luzuriagaren Tafallako fabrikan lanean eta orain berriki pleurako minbizia diagnostikatu diote, garai hartan arnastutako amianto hau-

tsak eraginda. Bere ibilbide osoaz gain, mundualdiko azken hilabeteotan zertan ari den kontatu digu elkarrizketan. Bukatzean ondoko gelan, apalategien artean, ahopeka kantatzen sumatzen dugu, berak bildutako jota heretiko horietako bat, seguruenera. Irribarretsu agertu da eta liburu eta antzinako Euskal Herriko mapa bana eman dizkigu opari.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Zer moduz zaude?

Ni ondo eta amiantoa hobeto, omen.

Ekintzaile sutsu, gorri eta independentista izan zara beti eta oso gazte hasi zinen borrokan. Nola eta zergatik?

Tafallan jaio, bizi eta lan egin izan dut bizitza osoan. Gurea mota askotako muga lekua da: Ager eta Saltus Vasconum artekoa; hizkuntza-muga; harriaren eta adobearen arteko muga; olibondoa

(Olibardia) eta iratzea (Iratxeta) musukatzen diren lekua; muga militarra, bai arabiarrekin, bai liberalekin XIX. mendean, eta gaur egun baita muga politikoa ere: NATOri bai ala ez esan zieten arteko muga izan zen eta orain legealdi honetan, aurrekoan bezala, EH Bilduko alkatea dugu Tafallan.

Nire aitona-amona gaztetan jornalariak izan ziren eta harriak botatzera atera behar izan zuten komunalak defendatzeko. Gero Ameriketara emigran-

te moduan joan eta, zorionez, itzuli egin ziren, bestela ni orain tangoak kantatzen ariko nintzen. Haiei esker gertu izan nituen errepublikaren eta 1936an piztu zen errepresio handiaren oroitzapenak. Aitona-amonek ezkerreko memoria historikoa transmititu zidaten haien kontakizunekin.

Bestalde, ez dut urruti izan euskal kultura, nire herrian beti egon delako korrante euskaltzale bat. Umetan, Aralarko Aingerua etortzen zenean, "Mikel,



GO

atzoko, gaurko

gudari

Jose Mari Esparza Zabalegi

TAFALLA, 1951



Editore, idazle eta ekintzaile gorri eta independentista. 1980an Tafalla-ko historiari buruzko lehen lanak argitaratu zituen, eta José María Jimeno Juríorekin elkarlanean aritu zen eskualdeko ikerketetan. 1985ean Altaffaylla Kultur Taldea sortu zuen hainbat lankiderekin memoria historikoa lantzeko. 1988tik Txalaparta argitaletzeko zuzendari eta editore izan da berriki arte. Beste elkarteren artean, Nafarroako Ondarearen defentsarako plataformako sortzaileetako bat izan da. Ehunka artikulua eta 30 liburu inguru idatzi ditu bakarka edo beste egilerekin batera. Esaterako, *Navarra 1936. De la Esperanza al Terror*, (Nafarroa 1936. Itxaropenetik izura) memoria historikoaren lan mugarrria.

Mikel gurea / Gorde, gorde / Euskal Herria" kantarazten ziguten. Ez genekien zer zen hura. Latina zela uste genuen. Gero 14 urterekin dantza talde batean sartu nintzen neska baten atzetik, baina neskatxa atera egin zen eta ni geratu. Euskal kulturari betiko gelditu eta euskara hasi nintzen ikasten.

Iruñeko Salestarren ikastetxean ikasi ondoren, 17 urterekin Luzurriaga fundizioan sartu nintzen eta han 20 urtez aritu nintzen lanean eta sindikalgintzan. 1.200 langileko lantegi horretako langileria berria eta indartsua zen eta frankismoaren aurkako erakundeak ezagutu genituen. ETak liluratu egin gintuen eta fitxategi mental osoa berrantolatu zitzaigun: bat-batean ezkertiarak, errepublikarrak eta abertzaleak ginen, dena batera eta banaezina.

Egia esan, nire familiaren historia oso ohikoa da bertako jende xumearen artean: birraitona-amona karlistak; aitona-amona komuneroak eta *ugetistak*; frankismoak isilarazitako gurasoak; eta gu, abertzaleak.

Enpresari eta intelektual bilakatu zinen fabrikari 20 urte aritu ondoren...

Bai, gehien gorrotatzen nituen bi figurak. Fabrikako sindikalista eta langile talde batek Altaffaylla Kultur Taldea sortu genuen. Gure lehen lana, *Navarra 1936. De la Esperanza al Terror* (Nafarroa 1936. Itxaropenetik izura) izan zen, gerora Nafarroan memoria historikoan erreferentzia izan den lan itzela. Erakutsi genuen langileek errelatoa kontatzeko tresnak sortzen ahal zituztela eta oso harro sentitzen ginen horregatik. Ez da itxaron behar intelektualek edo unibertsitateek gure memoria berreskuratu arte: geuk egin behar dugu.

Gerora Txalaparta argitaletxea hartu genuenean gure historiaren azken ehun urteei buruzko lan entziklopedikoak hasi ginen plazaratzen. Ondoren Euskal Memoria Fundazioa sortu genuen helburu berarekin, Euskal Herri osoko datuak biltzeko. Memoria borroka esparru bat da. Hau izan da beti gure lanik garrantzitsuena eta herri gutxitan egin dena. Munduko beste editore askorekin egon gara eta ikusten dutenean gure 50 liburukitako euskal borrokari buruzko lan entziklopedikoa, harrিতuta gelditzen dira.

Txalapartak aurten 35 urte bete ditu. Nolako izan da bere bidea?

Txalapartarekin fabrikari genituen sentimendu sozietario eta sozialistak edizioaren mundura ekarri ditugu. 1.500 liburu inguru kaleratu ditugu 35 urte hauetan, eta irabazi dugun guztia berriro inbertitu dugu proiektu berrietan. Azkena, Iruñekoa, sukurtsal bat da. Hori argi utzi behar da. Tafallan ditugu sorlekua, egoitza ofiziala eta biltegia. Eta pozik nago oso jende ona eta militantea dagoelako lanean, guk genuen izpiritu berdinarekin lanean ari dena.

Editore berriei gai guztiez hitz egin eta eztabaidatu behar dela esaten diet. Eta ihes egin behar dugula "politikoki zuzena" den pentsamoldetik edota ideologia menperatzaitetik, goiko klasearen ideologia delako, Marxek zioen bezala. Gaur egun gai tabu asko daude gure artean. Feminismoaz, migrazio masiboaz, ETaren paper historikoaz, Ukrainako gerraz edota Euskal Herriko jaiotze tasa urriaren zergatiaz eztabaidatu behar da libreki, diskurtso menderatzaileari men egin gabe.

Agian hori zaila da titularren garaian bizi garelako, ideietan sakontzeko aukerarik gabe?

Jakina. Hori da daukagun arazorik handiena: gazteak galtzen ari dira gai batean sakontzeko eta 300 orriko liburu bat irakurtzeko gaitasuna. Hori kezagarria da. Liburuak ez dira soilik denbora pasak, baizik eta ariketa mental bat eta ahalmen hori ez baduzu garatzen atrofiatzen da, giharrak bezala. Liburu baten sakontasunean sartzeko gauza ez bazara, zure pentsamendua arinkeriatan gelditu da eta orduan sloganak irabaziko du beti. Eta sloganak egiteko sistema kapitalistak baliabide handiagoak dauzka. Gainera oso onak dira ezkerreko ideiak bereganatzen eta orain denak dira ekologistak, feministak, bakezaleak, humanistak eta aurrerakoiak. Oso zaila dugu eta uste dut munduko editore berriek izugarriko erronka dutela behar diren libururak argitaratzeko.

Bataila hori galtzen ari gara? Gizakiok nora goaz?

Ni oso ezkor nago. Agian nire gaixotasunagatik izango da, baina ezin dut saihestu mundua begirada mesianiko samarrarekin ikustea. Jada ez



gaude geure burua engainatzeko. Ni harrituta nago Gazan gertatzen ari denarekin, adibidez. Ez nuen uste halakorik inoiz ikusiko nuenik. Baina okerrena da mundu guztia ikusten ari dela zuzenean telebistan eta ikaragarria dela nola ohitzen ari garen hori ikustera. Honetan guztian bada mezu subliminal bat: hau da sistemaren aurka altxatzen diren guziei gertatuko zaiena. Gerta daiteke eta, izan ere, gertatzen ari da. Oso gogorra da. Eta ezkerria oso ahul dago. Nire itxaropena da NATO garaitua izatea Ukrainan edota edonon, AEB gainbeheran etortzea eta mundu multipolar bat sortzea non langileek eta herri txikiek beste motatako zirrikituak bilatzeko aukerak izan ditzakegun hurrengo utopiak altxatzeko. Baina orain ez dugu, [Txabi] Etxebarrietak zioen moduan, aldeko haizerik.

Eta Euskal Herriari begira?

Euskal Herriari dagokionez, epe ertainera, are ezkorrago nago. Txikiegiak

gara eta, gainera, ez dugu tresnarik datozen aldaketak kudeatzeko. Europako jaiotza-tasarik baxuena duen herria gara. Nolabait esateko, desagertzen ari den herria da gurea. Hori bai, beste biztanle batzuek ordezkatu dute, gizon zuriek indiarrek Amerikan ordezkatu zituzten bezala. Jakina, beti geratuko da siouxen hizkuntza hitz egiten duen taldetxo bat, edo euskara, eta pilotan jokatuiko duena, turistek gozamenarako. Iparraldean hori gertatzen ari da jadanik.

Kultura-aniztasuna deritzona eliteek eragindako tranpa bat da, gizabanako mota bakarra nahi dutelako: kontsumista eta langile prekariora. Eta 'Anaia Handia' globalari lotuta, telefono mugikorraren eta kultura anglosaxoiaren bidez. Tradizioa, familia, sindikatuak, hizkuntzak,

memoria, sinismenak, nazioak, etniak... azken batean gizarte-kohesioa eragiten duen gauza guztiak, soberan daude sistemarentzat.

Gogoan dut beti lagun batek, André Schiffrin AEBetako editore handiak,

“ aniztasunari buruz zioen esaldia: “Koloretako arrain-on-

tzi batetik arrain-zopa bat egin daiteke; baina oso zaila da alderantziz egitea”. Eta milaka arrain ezberdin zituen mundu bat ezagutu dugu, horietako bat euskalduna. Proposatzen diguten kultura-aniztasuna arrain-zopa da.

Euskal Herriak pizgarri handi bat behar du. Konbultsio sozial, politiko eta kulturaleko aro berri bat, XIX. mendearen amaieran gertatu zen bezala edo gure belaunaldiak 1958tik aurrera bizi izan zuena. Euskaldunek bizirik iraun dute beti beren

***Euskal Herriari
dagokionez, epe
ertainera ezkor nago.
Txikiegiak gara eta,
gainera, ez dugu tresnarik
datozen aldaketak
kudeatzeko”***



askatasunaren, kulturaren eta hizkuntzaren alde borrokatu direlako. Normalean korrontearen kontra. Euskaldun belaunaldi berriak konformismoaren eta ideologia nagusiaren mende geratu-ko balira desagertuko ginatke. Xahoren amesgaiztoa beteko litzateke eta norbaitek munduko atlasean idatziko zuen: "Hemen Baskonia izan zen".

Borroka egin beharra transmititu nahi dut. Zerbait berria sortuko da. Beti sortu da.

Elizak bere izenean immatrikulatutako ondarearen defentsan lan handia egin duzu. Nola doa bataila hori?

Hori da nik ezagutu dudan eskandalurik handiena. Nafarroatik lortu genuen Euskal Herriko eta estatu osoko historiako lapurreta handi hori agerian uztea. Herriek eraikitako ondare erlijioso-dotazional guztia, etxeak, lursailak, hilerriak, frontoiak haien izenean immatrikulatu dituzte. Mundu guztiak arrazoa eman digu, baita Europak ere, baina, nahiz eta hauteskunde kanpainan ondare hori berreskuratzeko promesak egin, PSOEk, beste behin, Cervantesena egitea erabaki du: "Elizarekin egin dugu topo".

Gehien harritzen nauena zera da, gotzainei eskua bragetan sartzeko gai izan garela (pederas-tiaren gaiarekin), baina inor ez da gai izan eskua min gehien ematen dien lekuan sartzeko, poltsikoan, alegia. Nafarroan behintzat borrokarako tresna batzuk utzi ditugu (herri plataforma, udal batzordea, parlamentuko akordioak...), baina Euskal Herriko gainerako lurraldeetan badirudi ez dio-



tela garrantzi handirik ematen. Atzo bertan Gipuzkoako alkate batek idatzi zidan, laguntza eta aholkularitza eskatuz. Premiazkoa da plataforma nazional bat izatea, inplikaturako erakundeak eta herritarren mugimendua bilduko dituena, aholkuak emateko, mobilizatzeko eta auziak egiteko, lapurtutako guztia berreskuratu arte.

“**Euskal Herriak pizgarri handi bat behar du, konbultsio sozial, politiko eta kulturalerako aro berri bat**”

Zure azken liburuan Gernikako Arbola kanta defendatzen duzu Euskal Herriko ereserki moduan. Zergatik?

Arrazoi askorengatik. Zorri-memoria duen herrialdea gara. Gero eta despistatuago eta zatituago gabiltza 1981eko

haustura instituzionalaren ondoren. Baskongadoak eroso bizi dira beren estatus politikoarekin, haiek "Euskadi" dira, inork ez die ukatzen "euskaldun" direla, ikurrina dute... Eta askok ahaztu egiten dute zazpi probintzia garela. Horregatik atera da ekimen hau bereziki Nafarroa, Iparraldea eta diasporatik, gure lurraldetasunaren zentzua biziago mantentzen delako. Euskal Herriko historialari guztiak ados daude gure askatasunen benetako ereserki dela esatean.

Gernikako Arbola-k epika du, isurita-ko odola, antzinako borroken historia, Gallartako edo Eibarko langileengandik hasi eta Guardia Zibilak eginiko Donostiako sarraskiraino. Batzuek diote erlijiosoa dela, jatorria zein den jakin gabe, eta lehen sozialistetatik hasi eta

EuskarAbentura

espedizioa

2024

IZEN EMATE EPEA ZABALIK!

www.euskarabentura.eus

- ▶ 2007-2008-an jaiotako gazteak
- ▶ Martxoaren 8ra arte

▶ Babesleak

▶ Laguntzaileak

▶ Hedabideak

lehen ETAraino denek aitortu dute ereserkiak laikoena eta internazionalistena dela. Eta, adibidez, Nafarroako Erriberan gehien abestu den euskarazko abestia izan da. Anarkistek ere esperantora itzuli zuten, ereserki libertario gisa. Ereserkiak egin zuen Gernikako Arbola euskaldun guztientzako ikur, eta horrek bonba faxisten dianan jarri zuen. Beraz, daukagun sinbolorik internazionalistena da.

Bitxiena zera da, alderdi abertzale guztiek etengabe hitz egiten dutela "naziogintza" gauzatzeari buruz, eta 1853az geroztik himno nazionaltzat hartu izan dena, lurralde guztietan eta korrante politiko guztietan, kantatzeko proposamen zehatz bat dagoenean, batzuk beste alde batera begiratzen hasten dira. Izan ere, proposamen berri asko egon daitezke, eta ez dezagun ahaztu [Ricardo] García Danboreneak berak ere *Desde Santurce a Bilbao* himnotzat proposatu zuela Eusko Legebiltzarrean.

Ezjakintasunetik bakarrik utz dezakegu 170 urteko ereserki nazionala

izandakoa. Irulegiko eskua zabortegira botatzea bezala litzateke.

Orain, zertan ari zara lanean?

Zorionez, denbora izan dut gauzak txukun uzteko. Urteak lanean neramatzan bi liburu bukatu ahal izan ditut. Bata, *Imago Vasconiae*, Euskal Herriko lehen atlas historikoa. Harro geratzeko moduko lana da. Bestea, Zumalakarregi eta garaiko euskal independentismoari buruzkoa. Gero, kudeatu dudan guztiaren eskualdaketa dago: enpresak, fundazioak, elkarteak, artxiboak... Tartean oraindik mendira joaten naiz, lagunekin abesten dut, eta aitarengandik eta aitonarengandik jasota eta soberan dudan umore beltza kudeatzen dut. Euskal Herriak oso zoriontsu egin nau. Banoa pozik.

Dena den, zailtasunak badituzu eta azken unera arte borrokan zabilzta, ezta?

Ez nuen uste azken momentuan eta hain gertutik ikusiko nuela kapitalismoaren

aurpegirik itsusiena. Amiantoaren borroka honetan Euskal Herrian milaka pertsona hiltzen ari dira kutsatuta, jakin gabe arrazoia dela amiantoak eragindako lan gaixotasun bat.

Taktika oso sinplea da: denbora pasatzen uztea, kaltetuak hiltzen joan daitezten eta ezin izan dezaten auzirik abiarazi. Horrela, Gizarte Segurantzak nire enpresa zaharrari eskatzen dio egiaztatzeko nik 20 urtez lan egin dudala bertan (nahiz eta hori jasota dagoen nire lan-bizitzan), eta enpresak hiru hilabete pasata erantzun die ez nautela ezertaz ezagutzen. Eskandalu bat da. Eta hori niri egiten badidate, mundu guztiak ezagutzen nauela, oraindik ondo nagoela, eta hori salatzeko baliabideak baditudala, zer ez diete egingo adin gehiago, osasun gutxiago eta baliabide urriago dituzten lankide-ohi askori? Amiantoaren arazoan bidegabekeria handia eta kriminal solte asko daude.

Beraz, azken txanpan, lasai egon ordez, nire sindikalista jatorrira itzultzera behartu naute. Kimioterapia saioren eta testamentuen artean, pankarta hartzera behartuta berriro ere. Madarikatuak izan daitezela! ●

“
**Amianto dela eta,
kimioterapia saioren
eta testamentuen artean,
pankarta hartzera
behartu naute
berriro ere”**

Urtarrilekoa, kalean!

**EUSKARA
IRAKASLEA
ZARA?
IRAKASLEA?**

- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



Teoria geopolitiko anglosaxoiak

Gutxik sinesten dute 2024an Ukrainako gerra amaituko denik, horretarako bake itun bat beharko litzateke, eta agertokiak hori baino zehrikusi handiagoa izan dezake su-eten edo armistizio iraunkor batekin AEBek horrela nahi badute. John Mackinder (1861-1947) geopolitika anglosaxoiaren oinarriak jarri zituen geografoak zioen Ekialdeko Europa gobernatzen duena nagusitu egingo dela Eurasiako bihotz kontinentalean (*Heartland*) eta hori kontrolatzen duenak planetako uharte nagusia (Eurasia) menderatu eta, beraz, mundua bera zuzenduko duela. Horregatik, geopolitologo anglosaxoienez beti izan da garrantzitsua potentzia kontinentalen arteko aliantzak eragozteak. Beraien ikuspegitik, Eurasia zatitua eta liskartsua dagoen bitartean itsasoko potentzia anglosaxoiek nagusitasuna izango lukete.

Mackinder britaniarrak beldurra zion Errusiaren eta Alemaniaren arteko edozein motatako lankidetzari, horregatik, oztopatu behar zela zioen. Beldur hori, besteak beste, Nicholas J. Spykman, George F. Kennan, Henry A. Kissinger edo Zbigniew Brzezinski geopolitologo estatubatuarren artean ere zabaldu zen. Kissingerrek, adibidez, Txina eta SESBen arteko elkarlana oso arriskutsua zela irizita, Txinarekin aliantza bultzatu zuen Pekin-Mosku ardatza hausteko.

Logika horretan ulertu behar da azkeneko urteetako Ukrainako gerra, horri esker AEBek helburu nagusietako

Bidenek kongresuan azaldu zuen Israeli emaniko dirulaguntzak oso eraginkorrak zirela, oso garrantzitsua delako AEBen hegemonia eraikuntzan

bat lortu dute: Alemania (Europar Batasuna) eta Errusiaren arteko edozein aliantza mota luzarorako haustea. Baina, trukean, Txina eta Errusiaren arteko lankidetzaren indartu egin da eta horien lidergopean integrazio eurasiarrak aurrera egin du. Horrelako egoerei aurre egiteko, geopolitologo iparramerikarrek garatu zuten teoria da *Heartland* kontrolatzea ez dela hain garrantzitsua, baldin eta potentzia kontinentalei kostaldeetarako beraien proiektzioa oztopatzeko bazea.

Spykmanen ustez, funtsezko eremua ez zen *Heartland*, baizik eta Eurasiako kanpoko gerrikoa diren kostaldeak (*Rimland*). *Rimland*ak garrantzi handia izango luke, pisu demografikoagatik, baliabide naturalengatik eta garapen industrialagatik. Horrela, Spykmanek Mackinderren logika aldatu zuen esanez



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Rimland kontrolatzen duenak Eurasia gobernatzen duela, eta Eurasia kontrolatzen duenak munduaren patua zuzentzen duela. Spykmanek uste zuen AEBek *Rimland*eko estatuak kontrolatu edota desegonkortu behar zituztela, superpotentzia gisa nagusitzeko eta, horrela, mundua menderatzeko. Horrek esplikatzeko du historikoki AEBen interes gerrazalea *Rimland*ean egotea: Korea, Vietnam, Afganistan, Irak, Jugoslavia, Ukraina... eta Palestina.

Palestina beste atal bat da, baina ez nolanahikoa. 1986an Joe Biden senatariak AEBetako kongresuan azaldu zuen AEBek Israeli emaniko dirulaguntzak oso eraginkorrak zirela Tel Avivetik paper oso garrantzitsua jokatzen duelako Washingtonen hegemonia eraikuntzan eta erantsi zuen Israel existituko ez balitz, AEBek asmatu beharko luketela eskualdean dituzten interesak babesteko.

Israel bere garrantzi geoestrategia-koaz jakitu da, gainera biderkatu egin da AEBen dekadentzia hasi zenetik. 1990eko hamarkadan Washingtonek, arabiar herrialdeen artean bere hegemonia indartzeko estrategia gisa, israeldarrak palestinarrekin negoziatzera behartu zituen bi estatuen logika hala nola bideragarri egiteko. Egun, aldiz, Tel Avivetik badaki Palestina deuseztatzeko hartu beharreko erabaki odoltsuenak hartuta ere Washingtonek irentsi beharko dituela, Israel ezinbestekoa zaiolako nazioarteko nagusitasuna eusteko borondate liskartsuan. ●

Maitasun erromantikoaz



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

DOM CAMPISTRON

Gehiago entzuten da orain maitasun erromantikoaren auziaz hitz egiten, eta gainera eta zorionez, modu kritikoan. Azkenean, harreman sexu-afektiboen gaia bere sakonean hasi gara aztertzen, zein handiak diren bikote harreman batekin izan eta eman behar duenari buruz egiten ditugun espektatibak, zein okerra den maitasun onak izan behar duenari buruz eraiki dugun kontzeptua.

Maitasun erromantikoaren mitoak kalte handia eragiten du. Hasteko, behin ere ez delako irudikatu dugun bezalako izaten, edo filmetan agertzen den modukoa, eta noski, horrek zapuztu egiten gaituelako, horrekin batera datorren porrot sentsazioarekin, geure buruaren balioaz egiten dugun interpretazio okerraren albo kalteekin, eta abar. Egia da gauzak aldatzen ari direla, edo horren sentsazioa dugula, baina nerabeekin lan egiten dugunok ongi frogatu dezakegunez, ez nahi izango genukeen azkartasunez. Gauzak aldatu dira, bai, baina ez hainbeste.

Kontua, dena den, harago doa. Arazoa ez da bikote harremanak ez direla inoiz izaten kontaktu diguten bezalakoak –edo behintzat ez hori bakarrik– baizik eta hala izan ahal balute ere, ez direla

osasungarriak. Erran nahi baita, bikote instituzioaren zentralitatea bera dela auzitan jarri beharrekoa, eta ez bakarrik bikotean egoteko dagoen modu toxiko samar hori. Bai, beharrezkoa da bikotekide(ar)ekin erlaziozatzeko modua aldatzea, baina baita bikotea beti harreman sozial eta instituzional guztien oinarria izatea ere. Bestela, azaletik baizik ez gatzaizkio gaiari heltzen ari.

Ez dakit inoiz ohartu zaretan, baina lotsa-emangarriak dira bikote instituzioak gure gizartean daukan balio, prestigio, pribilegio mordoa, eta nagusitasuna. Nola liteke, adibidez, ama zaindu beharragatik edo amaren heriotzagatik hiru edo lau eguneko baimena izatea lanera joan behar ez izateko, eta ezkontzeagatik bi asteko oporraldia izatea? Ere mu administratiboko askoz adibide gehiago eman litezke, baina hori bereziki adierazgarria dela uste dut, ongi ilustratzen du azpian daukan esanahi eta ideologia. Niretzat, zer nahi duzue esatea, eskandalu bat da.

Eta maila pertsonalean ere, antzera. Bikote formatuaren gainean eraikitzen da bizitza sozial nagusia, bikotean aurkeztu ohi gara eremu sozialera, bikotea da gehien zaintzen dugun harremana, ez dugunean gehien desio duguna. Bi-

kotea da gure bizitzaren erdigunea, gorentasunaren etiketa eman diogun lotura, eta hori, noski, beste harreman batzuen kaltetan.

Izan ere, laguntasunarenak beharko luke, ene irudiko, instituzionalki nola sozialki, gehien zaindu beharko genukeen lotura, lagunaren sarea baita gehienetan sostengua bermatzen diguna, denboran iraun egiten duena. Harreman sexu-afektibo onen oinarrian ere egoten dena, adiskide on izatearen baldintza.

Urrun gaude, ordea, horretatik. Lagun on batek ez du errekonozimendurik, ez dugu bera zaintzeko baimen lanegunik, ezin diogu herentzia utzi, ez bederen bikote bati utziko bagenio edukiko lituzkeen baldintza beretan, adibidez. Eta pertsonalki, zenbatetan ez ote d(it)ugun laguna(k) bigarren maila batera jaitsi, nobio edo nobia bat topatu dugunean, sare afektiboa pertsona bakar baten truke ahaztuta.

Brigitte Vasallok polimaitasunari ematen dion adierarekin bukatu nahi nituzke hitzok. Polimaitaleak dira lotura bakar bati lehentasuna ematen ez dioten horiek. Sare (sexu-)afektiboa maila bertsuan zaintzen duten horiek. Nik, hor, sekulako iraultza ikusten dut. ●

Agurra, betiko?



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Puska batean ez zaigu ahaztuko joan den abenduaren 28an Iruñeko udaletxeko plazan bizi izandakoa.

Esanahi eta emozio handiko gertae-rak izaten direnean gertatu ohi den bezala, gaia bat izanda –Iruñeko alkate aldaketa, mozio zentsura bat medio–, azpigaiak asko dira. Zer esanik ez alkate ohiak berak, bere deklarazioekin, gasolina gehiago bota dionean mintzagaien suteari. Nago, eskailera-garbitzaileen kontura esandakoarekin, bere burua salatu ez ezik, Nafarroako eskuinean nagusi den ideologiaren litekeen portretarik perfektuena osatu duela. Konparaziorako, Mario Camusek pelikula oso bat, pelikula gogoangarri bat –*Los santos inocentes*–, behar izan zuen erretratatzeko, hark bezain ongi, Ibarrolak esaldi bakar batean erakutsi duen klasismoaren esentzia. Ibarrolak oso ongi emango luke Camusen filmean, zailtzarik ez horretan; eta badu zerbait justizia poetikotik alkate ohiaren ordezkatzeari gertatzeak Camusen filmari izena ematen zion egunean, Inozente Egunean, alegia. Bakarra, 39 urte itxaron behar izan dugula. Ze, jende honen arazoa da gutxi gorabeherako demokrazia gutxi gorabeherako formalaren 39

Orain ez da zaila
imajinatzea politikatik
bizi nahi duten
koadroak PPrean aurrean
ate joka, Tuterako
alkatetza baizik ez
daukan partiduak
eskaintzen ahal duenez
fio gabe

urtek, eta ez mende batek, eta ez bost mendek, ez dutela balio beren egiazko izaera aldatzeko.

Baina, eta artikulua luserak horenbesterako aukera ematen duenez, hel diezaigun aferaren beste azpigai bati: gero eta gehiago dira UPNren desagertzearen atarian, edo desagertzearen hasieran, egon gintezkeela esaten duten ahotsak. Ez hain aspaldi, politikaz

nik baino askoz gehiago dakien analista batek zioen eskuin-erregionalistaren (UPN, CDN) edo eskuin-zentralistaren (AF, UCD, AP, PP...) arteko lehiaren arrazoa zela benetan agintzen dutenak ez direla historikoki ados jarri Nafarroa menderatzeko formula edo marka egokienari buruz. Marka erregionalista bat 40 urtez baliatu eta gero, orain marka estatalistarantz lerratu omen da balantza. Sayas eta Adanero aitzindariak izan ziren, hortaz, eta orain ez da zaila imajinatzea politikatik bizi nahi duten koadroak PPrean aurrean ate joka, Tuterako alkatetza baizik ez daukan partiduak eskaintzen ahal duenez fio gabe. UPNk, egun, ez dauka lider balekorik, ez programarik. Haserrea eta iraina baino ez. Konponduko al dute hori apirilerako? Eta, bestela, zer egingo dute hurrengoan ama eskailera-garbitzaile duten –edo bakarrik nafar sentitzen diren, edo forua probintziaren instituzionalizatzearen ardatza dela sinesten duten, edo ez Madrilen eta ez Bilboren morroi izan nahi ez omen duten, edo...– UPNren boto emaileek? Horra historia honen gakoetako bat.

Asironzaleoi, itxaronaldiaren luzeaz hausnartzea dagokigu. ●

bertako
igogailuak | ascensores

-rekin BAI!

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz **benetako 24/7/365** zerbitzuari
- Baietz **urrezteari** mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei

GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus

MINBIZIAREN GINKANAN

PERTSONA ZELULEN AURRETIK JARTZEKO ALDARRIA

“Minbizia. Mediku bat zuri begira hitz hori ahoskatzen entzuten duzunean amildegi bat zabaltzen zaizu erraietan. Aldakek dar-dar eta aldaketarako indar falta”. Izan Inurri elkarteko kideak horrelaxe hasten dira definitzen gero eta ohikoagoa den gaixotasunak eragin diena. *Beldurra, errua eta ezjakintasuna*

dira asko errepikatzen dituzten hitzak, bizi izan duten prozesua deskribatzerakoan. Horri aurre egiteko, minbizia ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik lantzen ari dira, eta abenduaren 16an (*Min*)bizi kongresua antolatu zuten Donostian, euren esperientziatik abiatu eta informazioa denon esku jartzeko.

 LEIRE ARTOLA ARIN  IBAI ARRIETA

Zer da minbizia? Nola bizi minnez? Nola egiten dio aurre heriotzari bizi guztia aurretik duen 22 urteko neska batek? Nola lagundu gaixorik dagoen ama? Zergatik ni? Gin-tonic hura hartu izan ez banu sendatuta nengokeen? Nola izan ditzaket minik gabeko sexu-harremanak? Berreskuratuko dut desira? Kaltegarria da metastasiarekin kirola egitea? Dieta *ketoak* on egingo dit? Onkologikoko korridoreetan erantzun gabe geratu zaizkien hamaika galdera ditzute kongresura bertaratu-takoek, eta elkarrekin soluzioa bilatzen jardun dute. Besteak beste, eskatu dute bermatzeko ikerketa, baliabide publikoak, osasun langileak eta arta integrala, eta gogorarazi dute “erortzean eutsiko zaituen sarea” beharrezkoa dela.

Inurrien sarea ehuntzeko egun garrantzitsua izan da Donostiako Tabakaleran igarotakoa, eta goizean goize-

tik emozioz bete dute aretoa dozenaka lagunek. Bizitza eta heriotza parez pare izan dituzte, Aitziber Ugartemendia inurrikidea hil dela jakin baitute: “Eguna zartako batekin hasi dugu, baina minbizia halakoa da, heriotza eta bizitzaren arteko nahasketa. Horregatik diogu, hil arte bizi”, naturaltasunez gogorarazi digute Jordina Arnau eta Olatz Mercader Inurriko kide eta kongresuko moderatzaileek.

Heriotzaren gordina taularatuta eta Aitziber gogoan izanda ekin dio kongresuari Miren Cuerdo elkarteko sortzaileetako batek, baina minbizia erromantizatu gabe: “Heriotza ez da minbiziaren aurkako borroka baten amaiera. Benetako borroka, iraultza eta eragin beharra osasun publikoan daude, gobernuan eta gizartean. Denon ardura da”. Errukia baztertzeko eta euren aldarrikapenak entzuteko eskaera egin du.

ZER DA MINBIZIA?

Minbizia ez da errealitate bakar bat, hori argitu dute hiru mahai-inguruetako hizlariak, minbiziaren bueltan era batera edo bestera profesionalki diharduten gonbidatuek. Maria Muñoz eta Maite Álvarez ikerlariak –minbizia ikertzen ari dira Euskal Osasun Ikerkuntzako Institutu Biogipuzkoan eta Biobizkaian, hurrenez hurren– azaldu dute “DNAko min bat” dela gaixotasun hau, alegia, zelularen aldaketa, norbere gorputzean sortzen dena. Baina baditu berezitasunak: “Arazoa da ez dela toki batekoa, baizik eta moldatu eta zabaldu egiten dela. Ez da tumore bat bakarrik, horren ingurua ere da”. Eta zergatik ez du minbizia atzematen gure sistema immunitarioak eta hari kontra egiten? Álvarezek animaliekin egin du analogia: “Harrapakarien eta harrapakinen artekoa bezalakoa da. Gu prest gaude harrapakariagandik babesteko, baina



harrapakari hori harrapakinaren arabera moldatzen da”.

Egun, euren ikerlanen helburuetako batzuk hauek dira: tratamenduak hobetzen saiatzea sistema immunitarioa gai izan dadin minbiziari aurre egiteko, tratamendu horien toxikotasuna txikitzea, eta, metastasiari dagokionez, ulertzea tumoredun zelulei nola laguntzen dieten inguruko zelulek metastasia zabaltzen. “Ez gara borrokan ari zeozeren aurka, zuentzat ari gara borrokan”, zuzendu zataizkie azalpenak entzuten ari diren titi bakar, burusoil eta emakume anitzi. Donostiako laborategiko atea nahi duenarentzat irekita daudela jakinarazi die Muñozek, eta gonbidatu ditu azterketak gertutik ezagutzera, minbizia hobeto ulertzeko beste tresna bat izan dezaten.

“Ikerketa gehiago, bizitza gehiago”, laburbildu du Muñozek. Euskal Herrian puntako ikerketak egiten direla nabarmentzen dute instituzioetatik, baina bi ikerlariak baliabide eskasia aipatu dute, nahiz eta onartu aurrerapen ugari egon dela. Oztopo nagusitzat dute Espainiako Estatuko burokrazia, izan ere, Europako beste hainbat estatutan bost urteko proiektuak finantzatzeko funtsak ematen dituztela esan dute, eta kritikatu dute euren kasuan uneoro dirulaguntza txikiak eskatzen ibili behar dutela, handik eta hemendik: “Gu ikertzen ari beharko ginatke, ezin dugu pentsatzen egon ea 30.000 euro emango dizkiguten hurrengo hilabetea pasa ahal izateko eta ea zer paper bete behar ditugun hori lortzeko”. Burokrazia txikitzeke eta prozesuak laburtzeko eskatu dute: “Tratamendu batzuk onartu direnetik 600 egun [ia bi urte] beranduago eman izan dituzte ospitaleetan”. Azkartasuna funtsezkoa dela ohartarazi dute.

GAZTEEK ERE MINBIZIA DUTE

Ainara Urdapilleta psikologo sanitarioak nabarmendu du minbiziaren gaineko ezezagutza handia dela, egungo gizaratek bizkarra ematen dielako errealitate mingarriei, zeren heriotzarekin lotzen baitira eta “beldurra ematen baitigute”: “Pentsatzen dugu gauza txarrak ingurukoei pasako zaizkiela eta ez guri”. Eta albokoak minbizia badu, prest gaude akonpainatzeko? Urdapilletak dio ez gaudela hezita entzuteko eta laguntzeko: “Hainbeste hunkitzen gaitu errealitate mingarri horrek, ezen saiatzen garen egoera kontrolatzen eta soluzioa bilatzen, aurrekoaren sufrimenduan fokua jarri ordez. Beldurretik ezin dugu



“Hemen gaude munduari gogorarazteko gazteok ere minbizia daukagula”

Iara Alonso, 22 urte

akonpainatu pertsona bat. Bizitzarekin konektatzea lortu behar dugu”.

Horixe dute oinarritzat euren testigantzak oholtzan kontatu dituzten zazpi inurrikideek, bizitzea, eta hil berri den Aitziberrek berbera egin zuela gogorarazi dute: “Aitziberren kemena ez da borrokatzekoa izan, bizitzekoa baizik”. Kemena da, hain zuzen, ekiteko gorputz edo gogo indarra. Baina Inurriko kideek ondo dakitenez, aritzeko baino gehiago irauteko indarra behar izaten dute askotan minbiziaren prozesuan daudenek. Bizirautea ere ekintza gisa aldarrikatzen dute Inurriin, eta elkarteko kideen babesba “gotorlekutik ateratzeko esku bat” dela diote. Egoera berean daudenek osatzen dute *inurritegia*, baina nork bere testuinguru eta gorputz-gogotik bizi du prozesua.

Minbiziak Dragon Khan batean bezala sentiarazi dituela oroitu dute, eta jendartean zabalduta dauden uste eta estigmatetik urrun dagoela ere bai. Ahots

zartatuarekin, umorez, nahiz amorrutik, minbizia izateko hamaika modu daudela erakutsi dute. Esaterako, minbizia adin jakin batetik aurrera sortzen dela dioen ustea okerra dela baieztatu dute 22 urteko Iara Alonsok eta 28 urteko Eli Bergaretxek. “Hemen gaude munduari gogorarazteko gazteok ere minbizia daukagula” eta “gazte izateak ez du bermatzen minbizia izango ez duzunik” esanez igo dira oholtzara. Gai horri heldu diote (*Min*)bizi podcastean, eta 30 urte bitartekoan testigantzak jaso dituzte abendu amaieran estreinatuta zuten bigarren denboraldian, gazteen minbiziari ere ikusgarritasuna emateko.

Inurriin sortutako tribua babesleku eta ahalduzko gune izan dutela berretsi dute guztiek, eta Elena Guineak gako bat azpimarratu du: “Inurriin ematen digu aukera subjektu aktibo izateko”. Alegia, gaixo eta paziente paper hutsetik harago, prozesuan erabakiak hartzen dituen pertsonak dira. Honela itxi du bertsoan testigantzen tartea Oihana Iguaranek: “Inurri da ezabatu nahi gaituen sistema bat desgaitzea / Iraultzailea delako oraindik elkar zaintzea”.

MINBIZIAREN GINKANA

Kongresuan deuseztatu nahi izan duten beste ustea hau da: minbizia duen norbaiten bizitza horixe besterik ez dela, minbizia izatea. Eta metastasiaren kasuan, zer? Tabakalerako publikoan bertan egon diren zenbaitek hamar urte



daramatzate tratamenduan, edota sendaezina den metastasiarekin; euren bizitza bizigarri egiteko baliabide gehiago eskatu dituzte.

Maria Muñoz eta Maite Álvarezek berretsi dute gero eta gehiago ikusten ari direla kasu horiek, alegia, minbizia izanda luzaro bizi den jendea. Ikerlarien xedeetako bat ere bizitza ahalik eta gehien luzatzea da: “Duela bospasei urte hil egiten ziren, eta orain batzuk sendatu egiten dira; eta ez bada hala, helburua da egunak, asteak, urteak irabaztea, horretan gabiltza borrokan”. Azken urteetan immunoterapiako tratamenduetan egon den hobekuntza izugarria dela ziurtatu dute, eta kimioterapiarekin konbinatuta emaitza oso onak dituzten terapiak daudela. “Minbizia irauli duten tratamenduak dira, besteak beste, laguntzen dutenak tumorea gehiago kontrolatzen eta bizitza luzatzen”.

Minbizi metastasikoa dutenak uneo-ro onkologikora joan-etorrian ibiltzen dira, eta Ane Pescador Donostiako Onkologikoko erizainak kontatu du ikusi duela egoera okertzen. Bederatzi urte daramatza bertan lanean, beraz, onkologiko zaharra eta berria ezagutu ditu: “Nahiago nuen lehenagokoa. Egun berean egin zenezakeen dena: analitikak, kimioa, diagnostikoa... Orain hiru bat egun behar dira, toki desberdinetan dagoelako”. Ondorioz, soilik gaixo izatera pasa eta egunerokoa galtzen dutela dio, ezin delako prozesua uztartu hala

Ariketa fisiko batzuek minbizia dutenei onurak eragin dizkiela ondorioztatu dute, baina ikerketa oso gutxi dago

nola lanarekin edo bizitzarekin. Gainera, itxaron zerrenda luzeak daudela baieztatu du, eta ziurgabetasun handiko momentu horietan medikuaren deia zain egoteak sortzen duen estresa eta antsietatea kaltegarriak direla ohartarazi dute erizainak zein entzuleetako ugarik. Osasun publikoa “deshumanizatu” dagoela dio, eta eskatu du denbora luzeagoa behar dutela pertsona bakoitza artatzeko; profesional gehiago jarri beharko lirakeke Pescadorren esanetan.

Jesús Manuel Blanco onkologoa iritzi berekoa da: “Dirua behar da horretarako. Baina ez guke diruari buruz hitz egin behar, baizik eta gaixoen beharrei buruz”. Ginkana baten moduan definitu du minbizia duen baten onkologikoko prozesua: medikuaren kontsultatik analitketara, gero beste mediku bat... “Galduta sentitzen dira, ez dakite nora jo... humanizazioa zaila da, profesional ba-

tzuk toki zehatz batzuetan daudelako”. Espazioa atsegina izatea ere garrantzitsua dela dio Blancok, eta Donostiako Onkologikoan alde horretatik hobekuntzak egon direla, inguruari berotasuna eta gertutasuna eman diotelako, itxaron geletan, adibidez. Dena den, oinarria denbora eskaintzean dagoela argitu du: “Legez 20 minutuko denbora ematen da pazienteko, baina batzuek gehiago behar dute, agian. Eta gainera, batzuetan lan kargagatik ez daude ezta 20 minutu ere”.

KIROLA ETA ELIKADURA, NORBERAREN ESKU

Onkologikoko ginkana horretan ez dute ia tokirik ariketa fisikoak, fisioterapiak eta nutrizioak, kongresuan salatu dutenez. Minbiziari aurre egiteko lagungarriak izan daitezkeen alorrak dira, eta arta integralaren parte. Ane Arbilla-ga fisioterapeutak eta Garbiñe Lozano Jarduera Fisikoan eta Kirolean adituak “ezinbestekotzat” jo dute fisioterapeutaren kalitatezko zerbitzua bermatzea sistema publikoan. Batetik, fisioterapeutaren gela egokia izan behar dela diote, paziente bakoitzari tratamendu individualizatua emateko; bestetik, minbizidun pazienteak artatzen dituen fisioterapeuta espezializatuta egon behar dela azaldu dute, egun, ez baitute ziurtatzen osagile horrek minbiziari buruz jakingo duenez: “Ezinbestekoa da esleitu dizuten fisioterapeutak minbizi guztiei buruzko informazio oro izatea”.

Ariketa fisikoari dagokionez, ikeretzeko asko dagoela diote, ikusteko non dagoen muga jarduera fisiko segurua egiteko eta noiz ez den gomendatzen egitea. “Beldur handia izaten dugu profesionalok minbizia entzuten dugunean”, onartu du Lozanok. Orain arte kimioterapia jaso dutenei esaten die mugimendua saihesteko, bihotzeko alterazioak izateko arriskua baitago, Arbilla-gak zehaztu duenez. “Baina orain ausardia ateratzen ari dira batzuk, zenbait ariketarekin probatzeko, eta ari dira gauzak ateratzen poliki-poliki”.

Publikotik egiaztatu du Mainerrek, duela hamar urtetik bularreko minbizi metastasikoa daukanak: “Onkologikoan eskaini ziguten parte hartzea ariketa fisikoaren ondorioak ezagutzeko ikerketa batean. Konturatu ginen oso baliagarri izan zitzaigula indar ariketa horiek egitea. Eta jarraitu nahi genuen baina ikerketa bukatu zen. Ateak jo genituen, Donostiako Udalak eskaini zigun espaa-



zio bat baina baliabide eskasak dauz-
kagu". Aitortu du bere analisiak ikusiz
gero badirudiela ezin duela mugitu, bai-
na beldurra albo batera utzi eta subjektu
aktibo izatera pasatzera animatu ditu
ingurukoak, nahiz eta onartu informa-
zioa behar dela.

Arbillagak gehitu du nutrizioak ere
garrantzia duela, "nutrienterik gabe mu-
gitzearen eragina zehazteko dago". Zer
jan behar du minbizia duenak? Josune
Ciriza dietista-nutrizionistak azaldu du
onkologoaren erantzuna dela "nahi du-

zuna" edo "dieta mediterranea". Nor-
bere kargu geratzen denean elikadura,
informazio bila hasten da pazientea eta
Cirizak ohartarazi du tentuz ibili behar
dela "lehengusuek" edo "sare sozialeta-
ko guruek" gomendatzen dituzten dieta
bereziekin. Nutrizionistaren funtzioa
azpimarratu du: "Pazienteak zalantzak
eta beldurrak badauzka jaten ari denari
buruz, nutrizionista baten informazioa
izateak emozionalki ere izugarri lagun-
tzen dio". Ikerketek erakutsi dutenez,
elikadura egoki batekin hobeto egiten

zaie aurre minbiziari eta tratamendu-
aren ondorioei, Cirizak nabarmendu due-
nez. Zerbitzu hori pertsonalizatua izatea
eta onkologikoan eskaintzea eskatu dute
kongresuko kideek.

GAIXOTASUNIK GABE ERE, HAMAICA DOLU

Ainara Urdapilleta psikologoak azpima-
rratu du minbiziaren prozesuan "oso go-
gorra bezain ahaztua" dela gaixotasunik
gabeko fasea. Trauma osteko sintomak
agertu daitezkeela dio, besteren artean,





bakardade sentimendua eta dolua galdutako harremanena edo errealtateena. “Krisia eragiten du inguru guztian: sexua, harremanak, familia, lana... dena birkolokatu behar da eta oreka topatu”. Aldaketei aurre egiteko babes emozionala eta familiarra behar dira Urdapilletaren esanetan, eta estresa arindu eta erabakiak hartzen laguntzeko akonpaimendua.

Sexualitatearen kasuan, minbizi pasatzearen ondorioak ugari direla gogorarazi dute Janire Ortega fisioterapeutak eta Garbiñe Merino psikoterapeutak. Diagnostikoaren momentutik, tratamendu osterarte. “Tratamendua hartu aurretik ere beldurra dugu, eta gorputza paralizatuta daukagu; kosta egiten da desirarekin konektatzea”, argitu du Ortegak. Ostean, tratamenduak aldaketa bortitza eragiten du emakumeen hormonetan: “Emozionalki prest

nago, baina gorputza ez dago puntu horretan. Dolua hasten da hor, sentitzen dugunean lehen desira pizten ziguten estimuluen aurrean ez duela erantzuten gorputz berriak”. Errua, amorrua... pizten ditu horrek, eta prozesu bat hasten da, desira izateko modu berriak bilatzeko; azaldu dute batzuek laguntza profesionala behar izaten dutela.

Kexu dira onkologikoan ez dutelako informaziorik ematen bagina lehortzeari edo sexu-harremanei buruz. “Zoru pelbikoaren disfuntzioa oso ohikoa da tratamendu baten ostean, eta ez da esaten”, kritikatu du Ortegak. Emakumeen desira gizonenaren pean ez jartzeko eskatu du, eta sexualitatea osotasunean lantzea, begirada feministatik. Izan ere, orain ematen duten soluzioa da penetrazioa izateko lubrikatzailea erabiltzea. Ortegak egoeraren larria deskribatu du bere kontsultan izandako kasuekin:


“Pazienteren bat izan dut esan izan diotena sexu harremanak penetrazioarekin izan nahi dituenen bi ardo kopa hartzeko. Edo krema anestesikoak ematen dizkiete beste batzuei”.

Minbiziak kendutakoaren dolua pasatzen ari dira kongresuan bildutako guztiak, era batera edo bestera, baina elkargune honek aukera eman die eskaerak bateratzeko eta entzunak sentitzeko. Besarkada, irribarre eta malko artean agurtu dute eguna, eta batik bat, aurrera jarraitzeko heldulekuekin. Miren Cuedok gogorarazi du Inurriren helburuak ez direla nolana hikoak: “Hau kongresu bat da, ez da festa bat. Hau aldarrikapen bat da. Lau haizetara zabaldu eta entzunarazi nahi dugun eskaera bat da. Eskubide bat. Jende asko ari da hiltzen dagokion garaia baino lehenago. Ez dezagun minbizi lorez eta margo arrosez makillatu”. ●

Nasayuwe ekintzaileak Kolonbiako Cauca

María del Pilar Casamachin Yule eta Luis Evelio Velasco Nuskwe

Hizkuntzaren aldeko aktibizatzen aurkeztu dituzte bere buruak Casamachin Yulek eta Velasco Nuskwek, nasa herriko indigenak biak ere. Nasayuwea biziberritzeko taldean ari dira lanean, Kolonbian, Cauca eskualdeko Toribío udalerrian. 37.166 biztanle dira eta, horietan, %96 nasa dira; gainerako %4, beste zenbait herri indigenatako kideek eta mestizoez osatzen dute. Garabide Elkarrearen Aditu egitasmoan parte hartu zuten urrian, hainbat hizkuntza gutxiagotutako haizmaika ordezkariarekin batera.

 MIEL A. ELUSTONDO

María del Pilar Casamachin Yule (Toribío, Kolonbia, 1994) etxetik da nasayuwe hiztuna. Eskolan ikasi zuen gaztelaniaz, etxeko hizkuntza baztertzera behartuta: “Etxean ez genuen nasayuwez besterik hitz egiten, eta eskolara hasi, eta burla besterik ez genuen jasotzen, batak besteari gure hizkuntzan hitz egiteko ere lotsatan ginen, eta beldurrez ere bai”. Zigorrik ez zuen jaso, baina senide zaharren lekukotza du: “Irakasleak erregela hartu, eta nasayuwez hitz egiteagatik jotzen zituztela esan zidaten”. Kostarik kosta, espainolez hitz egiten ikasi behar izan zuen Casamachinek. “Baina ez pentsa, espainol endredatua hitz egiten baino ez nuen ikasi. Oraindik ere zailtasunak ditut espainolez zuzen hitz egiteko”, aitortu digu.



Gisa bereko eskarmentua du Luis Evelio Velasco Nuskwek (Tacueyo, Kolonbia, 1986), bazterkeria hein handiagoan sufritu bazuen ere: “Hura diskriminazioa eta kultur genozidioa izan zen. Eskolara hasi nintzenean, espainola ulertu baizik ez nuen egiten. Irakasleek ez ziguten nasayuwez hitz egiten uzten”. Fisikoki eta emozionalki bizi izan ei zuten bazterkeria.

“Inoiz, gelatik ere atera ninduten. ‘Espainolez hitz egiten ez baduzu, ez zara sartuko!’, irakasleak neuri esana, adibidez. Eta behin baino gehiagotan gertatu zitzaidan nire ikaskideren bat txokoan zigortuta ikustea, geldirik, edo artale edo harritzintxorraren gainean belauniko jarrita... Zigor horiek bertatik bertara ezagutu nituen, ez bakarrik aditu. Eta etxeraino heldu ziren zigor horien ondorioak, gurasoek esaten baitzuten: ‘Etxean nasayuwez hitz egiteari utzi behar diogu, gure umeez eskolan gorriak ikusten dituzte nasayuwez hitz egiteagatik’. Horretara heldu ziren gurasoak, eta, toki askotan, horrelaxe eten zen hizkuntzaren transmisioa”. Urteak igaro eta, hasi zen egoera aldatzen, nasa komunitate beraren presioaren ondorioz, Velascoren aurreko belaunaldiaren borrokaren eraginez. “Hala ere, izan zen garai bat, nasayuweari buruz ezer jakin nahi ez nuena, burla eta mespretxua besterik ez baitzekarren gure hizkuntzak”. Gaur, hizkuntzaren aldeko borrokan lanean ari dira biak.

AKTIBISTA

Nasa komunitateko agintariak hizkuntzaren aktibista izateko eskatu zioten Velascori duela hamar urtetan, eta formazio ikastaroa egin zuten, hizkuntzaren biziberritzeaz, besteak beste: “Orduantxe ohartu nintzen hizkuntzaren garrantziaz. Eskola garaiko sufrimenduak ere ernarazi ninduela uste dut. Erabaki nuen borrokatu beharra nuela: nasayuwez hitz egiten dakitenek gure hizkuntzan hitz egin dezaten, hizkuntzari eutsi diezaioten; ez dakitenek, berriz, ikasteko aukera izan dezaten”. Horretan ari da eta, oraintxe, eskolarako murgiltze ereduak lantzen ari dela esan digu, edukiak-eta sortzen.

Eskualdean %96 nasa badira ere, hiztunak ez dira %20 baino gehiago, 2013ko inkestaren arabera. Erabilera, berriz, handiagoa da mendi aldeko herrietan, hiri ingurukoetan baino. “Gu Toribión hiriko giroan gara kasik, eta horrek gure artean nasayuwearren ga-

lera handiagoa ekarri du”, Velascoren esanetan.

Casamachinek, bestalde, era guztietako egoerak ezagutu ditu: “Nire ustez, hiztunaren kontzientziaren araberakoa da erabilera. Ni hasi berria naiz aktibismoan, nasayuwez hitz egiten nuen, baina hizkuntz kontzientziarik ez nuen. Besterik da orain. Gainerakoan, denetatik ikusi dut: dakienak hitz egiten duela, umeei erakusten ere ari direla, eta, gurasoek irakatsi ez dieten kasuan, hitz egiten ikasi nahi dutela ere sumatu dut. ‘Zergatik ez zeniguten irakatsi?’, esaten diete zenbaitek orain beren aita-amei. Familia askotan gertatu da gurasoek bata besteari nasayuwez hitz egitea, baina espainol hala-moduzkoan seme-alabei edota bisitariei. Arrazoia zen, jakina, haurrek eskolan jasotzen zuten tratutzarra. Oraingo egunean, gazte diren askok ez dute nasayuwea ulertzen, diosala besterik ez dakite nasayuwez egiten”.

NASAYUWEAREN EGOERAZ

Velascori hizkuntzaren egoeraz galdetu, eta esan digunez, 244.000 nasayuwe hiztun dirateke Kolonbian, herrialdean barreiatuak: “Nasa komunitate bakoitzak bere nasayuwe barietatea du, eta ezberdintasunak handi samarrak dira. Zorionez, 1998an-edo alfabetoaren batasuna adostu zuten”. Gaur egun, nasayuwe barietate guztiek alfabeto bera erabiltzen dutenez, hizkuntza eskolan irakatsi ezinik ez dago. Eta, hain zuzen, horri esker ikasi du irakurtzen eta idazten Casamachinek.

1978az gero, eskolan legezko sarbidea du nasayuweak, herrialdeko konstituzioak hizkuntzaren aitortza egin, eta balizko elebitasunaren bidean urratsak egiten hasi zirenetik. Velasco fidagaitz da: “Esan bai, elebitasuna, baina astean ordu bat, edo bi, gure hizkuntza irakasteak ez du batere emaitzarik ez. 2011n, horratik, nasayuwea berreskuratzeko estrategiak ezarri behar zirela agindu zuten gure komunitatearen arduradunek, eta horretaz gogoetatzen hasi ginen, nasayuwea lehen hizkuntzatzat irakasteko”. Orain, besterik ere egin dute: “Aurten, murgiltze metodologia landu eta gero, proiektu pilotuak abiarazi dira Toribíoko zenbait eskolatan, gure hizkuntza %80ko proportzioan irakasteko. Pilotu horietan, nasayuwe da hizkuntza nagusia, eta espainola, berriz, osagarria, %20an”.

Horrekin batera, Komunitate Hezkuntza Proiektua landu dute, zeina baita



NASAYUWE KOMUNITATEAK UTZIAK

nasa kultura berreskuratzeko programa, “hain zuzen, horrexen barruan sartzen dugu hizkuntza berreskuratzea”. Eta orain artean espainolari nagusitasuna ematen dion hezkuntza proiektua irauli, eta nasayuweri eman lehentasuna. Eta, Velascok esan digunez, egin ezinik ez dute, Kolonbiako Hezkuntza Ministerioaren barruan jardunda ere, nasek berek administratzen baitute hezkuntza beren lurraldeetan, herrialdeko konstituzioaren bermearekin. “Haatik, badakigu konstituzioaren babesa izanagatik ere, nazioko agintariak ez zaizkigula inoiz etorriko ezer eskaintzera: geuk azaldu behar diegu agintariei zer nahi dugun”.

Eta Toribión hiru barruti direla kontuan hartuz, eta 62 ikastetxe ere bai, hiru proiektu pilotu, eta ez gehiago, abiarazteko arrazoi franko ere bada. “Nasayuwea ikasgai gisa irakasteko ezintasunik ez dugu, baina irakaskuntza osorik nasayuwez bideratzeko aski edukirik ez, ibilbide metodologikorik ere ez oraingoz. Hala ere, hemengo esperimentuak ikusita, eta Garabideren laguntzaz, proposamen batzuk egin, eta metodologia oso bat antolatzen hasteko moduan gara”. Proiektu pilotuen ondorengatik, lurralde osora zabaltzea nahi lukete irakaskuntza, nasayuwez.

GEROAK ESAN BEZA

Helduen irakaskuntzari ere heldu nahi-ko liokete, baina hori pausoz pauso egin beharra dago, Velascoren irudiko: “Gure hizkuntzaren hemezortzi sustatzaile gara, ez gehiago. 2016tik 2020ra,



Nasayuwe komunitatea hizkuntza berreskuratu nahian dabil. Hemezortzi hizkuntza-sustatzaile ari dira lanean.

hizkuntza biziberritzeko plana antolatu genuen, eta helduen irakaskuntza eta alfabetatzea ezarri genituen lehentasun". hemezortzi sustatzaile horietan, helduen irakaskuntza gauzatzeko metodologia lantzen ari dira batzuk, heldabideak abiarazten beste batzuk... Bitartean, irrati alternatiboa eta webgunea ditugu, hizkuntza bistartzeko helburuaz beti". Asteaz zortzi orduko programazioa dute, baina ez erabat nasayuwez, esatari guztiek ere ez baitakite nasayuwez; horiek aldatzekotan direla adierazi digu Velascok.

Bi solaskideok esan digutenaren arabera, kontzientzia esnatze bat gertatzen ari da nasa komunitatearen baitan: "Hizkuntza ikasteko eskaera handitzen ari da. 'Nik ere ikasi nahi dut', esaten digute, eta gu, berriz, laguntzen saiatzen gara. Baina 18 aktibista besterik ez gara, honetan eta hartan ari gara lanean". Oraintxe, hasita daude nasayuwez ari diren kantariekin harremanetan jartzen, haien kantuak eta zabaltzen, eta hizkuntz paisaian eragiten, eta osasun arloan, lan-munduan, kale izenetan, aldarrietan...

EGONALDIA GARABIDEN

Kolonbiako nasa komunitatearen eta Garabideren arteko elkarlana ez da berria, Velascok dioenez: "Urteak dira aholkularitzan laguntzen ari zaizkigula. Orain, biziberritzeko plana egiteko prozesuan ere ari gara. Urte hauetan, aktibistok biziberritzea buruzko eza-

MP. Casamachin Yule: "Zuek bitarteko asko dituzue. Nahiago nuke guk egunen batean han halakorik izango bagenu"



gupenak handitu ditugu, gure testuingurura egokitu ditugu. Nik neuk, adibidez, Euskal Herrira etorri, eta nola lan egin duzuen ikusita, neure ideiak sendotu ditut. Hemengo egonaldiak elikatu egin nau, gogoeta eragin dit: 'Halako heldabide halako moduan abiarazi zuten hemen. Nola egin ote genezake guk?', gisako galderak eraginez, esate baterako. Alde horretatik, egonaldi honek markatu egin nau, nasa komunitateko aktibista taldeari are gehiago laguntzeko adorea eman dit".

Casamachin, berriz, harrituta dago. "Oso diferenteak dira gure egoerak. Zuek bitarteko asko dituzue. Nahiago nuke guk egunen batean halakorik izango bagenu! Oraintxe hartuko nuke. Aktibista hasi berria naiz, baina prest nago han nire ekarpena egiteko".

Deigarrienik zer ikusi duten galde-tuz gero, Casamachinek ez du dudarik. "Ikastolak. Harrigarria iruditzen zait

nola planifikatu duzuen irakaskuntza", esan du, ikastoletan lan egiteko moduz ari dela.

Velascok, berriz, euskararen alde sumatu duen elkarlana azpimarratu digu: "Gobernuak diru-laguntzak ematen ditu, eta behar da, baina ohartu naiz ez dugula erabat gobernuen laguntzaren zain egon behar, diruz ere autonomo jokatu behar dugula". Eta, horrekin batera, testuingurua aipatu digu, Kolonbiako armada eta gerrilla girotik datozela kontuan hartuta: "Gurea gerra eta errepresio ingurua da, hala ezkerretik nola eskuinetik kolpatzen gaituzte, gure lurretan borrokatzen dira. Guk, berriz, ez dugu inoren borrokarekin bat egiten, neutralak gara. Hargatik jotzen gaituzte alde batekoek zein bestekoek, asesinatoak eguneroko ogia dira. Eta hona etorri, eta bakea! Giro honek aurrera egiten laguntzen du!", azpimarratu nahi izan digu.

Aktibista, aspalditxo, Velasco Nuskwe. Hasi berria, aldiz, Casamachin Yule, aktibista izateko deialdia egin, eta ize-na emandakoa, formazio programa betetakoa. *Nuskwe* –"zaparradatxoa", euskaraz–, eta *Yule* –"errekasto"–, nasa herriaren hizkuntza nasayuwea biziberritzeko lanean biak. "Eskariak ere jasotzen ditugu, ez gutxi, geure nasa izenak berreskuratzeko. Horixe eskatzen digu familia askok, beren umeentzako izen-aukerak jakinarazteko". Casamachinen azkeneko oharkizuna, atzera Kolonbiara hegaldatu aurretik. ●

PALESTINA-ISRAEL

Nabka 1948: historia errepikatuko da Gazan?

Palestinarrak Gazatik kanporatzeko ideiak gero eta sostengu handiagoa du Israelgo gizartean. 2000tik aurrera ahaltsua den eskuin muturra gero eta indar handiagoz ari da hori bultzatzen. 1948an Nabka ezaguna gertatu zen Palestinan. Gaur egun, Israelgo Estatu serio ari da aztertzen garbiketa etnikoa errepikatzeko duen aukera.

 XABIER LETONA BITERI

Britania Handiko Agintaldian (1920-1948) zeuden palestinarren 1936-1939ko errebolta handia bideratu zutenean. Egoera baretu guran, ingelesak Peel Batzordearen zatiketa proposamenarekin heldu ziren Palestinara 1937an: lurralde historikoaren %17 eskaini zieten sionistei, eta horrek ekarriko zuen lur horretan bizi ziren 200.000 palestinarren erbesteratzea. Planak ez zuen palestinarren errebolta gelditu eta ez zen kanporatzea gauzatu, baina lehenbiziz hitz egiten zen ofizialki palestinarren kanporatze masiboaz.

Hamarkada bat geroago, 1947ko amaieran eta 1948an, sionisten presioa eraginkorra izan zen NBEn eta azken horren zatiketa planak Palestinaren %56 eskaini zien juduei –hamarkada bat lehenago %17 “bakarrik”-. Israelgo Estatu sortu zenean, sionistek 700.000 palestinar egotzi zituzten euren lurretatik inguruko herrialde arabiarretara, Nabka ezagunean. Israelek beste 300.000 mila palestinar kanporatuko zituen euren bi-

zilekueetatik 1967ko gerran, horietatik 145.000 1948ko gerran egotzitakoak ziren. Inoiz ez zuten euren herrietara itzultzeko eskubiderik izango.

Iragan urriaren 7ko Hamasen erasoaren ondoren, Israelgo gizartean ostera ari da indarra hartzen Gazako palestinarren egoztearena. Gaiaren azterketa egin dute *Jewish Current* Israelgo ezkerreko aldizkarian, eta bertan Jonathan Shamirrek dioenez, gaiak oraindik ez du zentralitate politikoa, eta publikoki bederen ez armadak ez gobernuak ez dute horren aldeko jarrera ofizialik erakusten. Israelgo gizartean, alabaina, gaur egun indar handia duten eskuin muturreko taldeak ari dira gaia astintzen eta israeldarren artean gero eta sostengu zabalagoa du. Areago, proposamenari estalpe humanitarioa ere ematen ari zaio.

ESKUIN MUTURRA BULTZAKA

Azaroaren 13an, barbarako, Likud alderdiko Danni Danon eta Ram Ben-Barak oposizioako Yesh Atid alderdi liberaleko parlamentariak artikulua idatzi

zuten *Wall Street Journal* egunkarian: “Nazioarteko estatuak betebeharrak morala dute –eta aukera bat– errukia erakusteko”; eta dei egiten zieten “mundu osoko herrialdeei, birkokatze asmoa erakusten duten Gazako familiak jasotzeko”.

1984an Israelgo inkestek zioten bertako juduen %15aren ustez lurralde okupatuetako palestinarren inguruko herrialdeetara deportatu behar zirela eta Israelgo arabiarren migratzera behartu. AEBetako Pew inkesta baten arabera, 2016an judu israeldarren %48 “arabiarren Israeldik kanporatzearen alde” zegoen; eta %79aren arabera, juduak ez direnak baino eskubide gehiago izan behar dituzte juduek.

2000. urtean hasitako Bigarren Intifadaren ondoren, Israelgo gizartea biziki lerratu da ikuspegi ultrajudu eta eskuin muturreko posizioetara, eta hori oso argi agertzen da alor ugarritan, bereziki palestinarrekiko gatazkan, edo barne mailako bizitzaren autoritarismo saiakeretan; horren adibide da Israelgo gizarte judua bitan zatitu duen Auzitegi



Palestinar familiak ihesi Gazako hirian Israelgo Armadak egindako erasoetatik.

ABED RAHIM KHATIB

Gorenaren eskumenak ahultzeko Likudeko gobernuak proposatu duen erreforma, joan den astean auzitegiak berak atzera bota duena.

Testuinguru horretan Nakba berbak gero eta indar handiago hartu du. Azken hamarkadan Israelgo hedabideak josita daude hari erreferentzia egiten dioten aipamenekin. 2022ko ekainean, adibidez, Garraio ministroa izandako Yisrael Katz-en mehatxuak argiak ziren: “Gogoratu 1948, gogoratu Independentzia Gerra eta Nakba. Galde iezaiezue zuen arteko nagusiei, aiton-amoniei, eta azalduko dizuete nola halako batean juduak iratzartuko diren eta jakingo duten euren buruak eta Estatu Juduaren ideia babesten”.

Hilabete batzuk lehenago, Uzi Dayan jeneral erretiratua eta Israelgo Legebiltzarreko Likudeko parlamentario ohia

2000ko Bigarren Intifadaren ondoren, Israelgo gizartea biziki lerratu da ikuspegi ultrajudu eta eskuin muturreko posizioetara

ere bide beretik abiatu zen eskuin muturreko 14 Katea hedabideari egindako adierazpenetan: “Arabiar komunitateari esan behar diogu adi ibiltzeko, baita erasoetan parte hartzen ez dutenei ere. Gerra zibileko egoera batera iristen ba-

gara, egoera jadanik ezagutzen duzen hitz batean bukatuko da: Nakba”.

KANPORATZE “BOLUNTARIOA”

Molde batera edo bestera, Nabkaren ideiarekin errepikapena sarritan ematen da Israelgo gizartean, izan akademian edo politikan. Azken finean, proiektu sionistaren sustraian dago “Jainkoak eman” zien lurraldean juduak estatua sortu eta bizi ahal izateko, ezinbestekoa zela aurretik han bizi zirenak, palestinarrek, kanporatzea. Milioika palestinar errefuxiatu sortu ditu Israeliek bere sorreratik, besteak beste, Gazako biztanleen %81 errefuxiatuak edo haien ondorengoak dira; hamarkadak dira beren etxeetatik kanporatu zituztela, baina haien buruetan ez dira Gazakoak, ezpada haiek edo haien arbasoak kanporatu zituzten herrietakoak.

Baina 1948ko kanporaketa eragin izana ez zen sionistek lotsaz bizi behar zuten zerbait. Londresen erbestean bizi den Illan Pappé historialari israeldarrak *The Idea of Israel. A History of Power and Knowledge* (Israel ideia gisa. Botere eta jakintza historia bat) liburu ezagunean azaltzen duen moduan, ezker eta eskuineko sionismoak hainbat hamarkadatan saldu zuten 1948ko palestinarren "irteera", toki gutxi batzuetan izan ezik, "boluntarioa" izan zela. Mito sionista horren arabera, palestinarek euren etxe eta herrialdeetatik alde egin zuten estatu arabiarretako agintariek hala agindu zieten. Eta hori erakusten da eskoletan.

1990eko hamarkadan Israelgo historiaren berrazterketa egin zuten historialari talde esanguratsu batek, postsionismo moduan ezagutu den korronte historiko eta ideologikoaren baitan. Korronte honek kritika gogorra egin zion ohiko sionismoari eta historialariek zalantzan jarri zituzten sionismo klasiakoaren mitoak. Pappé ere "historialari berrien" talde horretakoa zen. Zeuden datu ofizialetan oinarrituta 1948ko gerraren azterketa historiko ugari egin ziren, baina 1998an Israelgo Armadaren eta Haganaren -Israel sortu aurreko laboristen milizia sionista- dokumentu ugari desklassifikatu zituzten eta horietan historialariek argi ikusi ahal izan zuten 1948an egindako garbiketa etnikoa.

Pappék azaltzen duenez, datuei dagokienez jadanik ez zen sarraskiaren zalantzarik, argi zegoen gertatutakoa, baita geroxeago azalduko ziren historialari neosionistentzat ere -2000tik aurrera indartzen doan ideologia, judu eskuin muturrari lotutakoa-; hau da, indarra giltzarri izan zen palestinaren 1948ko kanporatzean. Datuak berdintsu ikusten zituzten batzuek zein besteek, aldatzen zena haien interpretazioa zen. Hebrear Unibertsitateko Historia Departamenduko dekanoa neosionista Alon Kadish-en esanetan, 1948koa "bigarren holokaustoa saihestu zuen gudua izan zen, justuek irabazi zieten ez-justuei". 90eko urteetako historialari berrientzat palestinaren aurkako giza eskubideen urraketa zena, ankerkeria eta gerra krimena, ikerlari neosionistentzat gerrako gertaera ohikoak ziren, eta agian ezinbestekoak, Israel orduan arabiarrez setiatuta zegoelako, hil ala biziko guduan.

KANPORATZE "HUMANITARIOA"

Gertaera bateko datuak ezkuta ezinak direnean jarraitzaileei ematen zaie ikus-



MAJDI FATHI / CORBIS

Gaza guztiz suntsituta palestinarrak atzerrira bultzarazi nahi ditu Israelek.

"Gaza eta Judea
eta Samariako
bizilagunak lekualdatu
beharko lirateke...
euren onerako"

Nissim Vaturi

Israelgo Legebiltzarreko
lehendakariordea

pegi moralizatzailea, eta horrela, Israelgo Armadak egindako sarraskiak ezinbestekoak izan ziren Davidek (Israel) Goliati (palestinarrak, arabiarrek) aurre egin ahal izateko. Hori da gertaerei ematen zaien ikuspegi historikoa. 1948an palestinaren ihesa boluntarioa izan bazen, gaur egun Gazatik haiek ateratzea "humanitarioa" izango da.

Erakunde kontserbadore garrantzitsuak, hala nola Misgav Institutua edo Tikvah Funtza ideia horiek ari dira sustatzen, eta *Haaretz* Israelgo egunkari liberaleko Nettanel Slyomovics-ek dioen gisan biztanleriaren kanporatze hori "ekintza 'moral' gisa birdefinitzen dute". Hala dio kazetari honek azaroaren 17an idatzitako artikulua sarrerak: "Bere garaian, arabiarrek kanporatzearen ideia Meir Kahane eta eskuin muturreko beste batzuen zen, eta israeldar gehie-

nentzat anatema. Orain, eskuindarren pozerako, gerrari irtenbide 'moral' eman diezaiokeen ideia da gero eta herriar gehiagorentzat".

Amir Weitmann Likudeko aktibista eta enpresariak Misgav Institutuarentzat egin berri duen txostenean zera irakur daiteke: "Israelek Gazako arabiar guztiak birkokatu eta errehabilitatu beharko lituzke Egipton, trukean herrialde horri milioika milioi dolar emanda". Azken asteotan pertsona esanguratsu asko agertu da publikoki kanporatzearen ideietara. Azaroaren 19an Gila Gamliel Inteligentzia ministroak argi eskatu zuen "Gazako palestinaren birkokatzea arrazoi humanitarioengatik, Zerrendatik kanpo" *Jerusalem Post* egunkarian idatzitako artikuluan. Joan den astean berriz mintzatu zen argi legebiltzarrean: "Gerraren amaieran Hamasen gobernu eroriko da, ez da agintaririk izango, eta populazio zibila laguntza humanitarioaren menpe egongo da erabat. Ez da lanik egongo eta nekazari lurren %60 segurtasun eremu bihurtuko dira (...) Gazako arazoa ez da gurea bakarrik, munduak sostengua eman behar lioke migrazio humanitarioari, ezagutzen dudana irtenbide bakarra da eta". *Zman Yisrael* hebrear egunkari arabera, Israelgo funtzionarioak izan dira Congon -eta beste leku batzuetan-, herrialde honek migratzaileak har ditzan.

Legebiltzarreko lehendakariorde Nissim Vaturi-ren (Likud) esanetan ere, "Gaza eta Judea eta Samariako [Zisjordaniaren izen biblikoa] bizilagunak lekualdatu beharko lirateke... euren onerako".

Bezalel Smtrich eskuin muturreko Finantza ministroa ere aspaldi da ados kanporatzearekin, eta ez du inoiz ezkutatu, baina orain arrazoi "humanitarioak" ere argudiatzen ditu. Gisakoak errepikatzen dituztenen zerrenda luzea da gaur egungo Israelen.

EZ-LEKUAK SORTU, ITZULERA EZINEZKOA EGITEKO

Idea sakon landuta dago Israelgo Gobernuan, oso aspalditik gainera, eta hainbat azterketetan ageri da. Iragan abenduko gaztelaniazko *Le Monde Diplomatique*-k zabal azaldu zuen urrian Israelgo Inteligentzia Ministerioak egindako txostena, non hiru aukera aztertzen ziren Gazako biztanleentzat: bat, gazatarrak bertan geratzen dira eta Palestinar Aginteak gobernatzen ditu; bi, gazatarrak geratzen dira, baina Israelek jarritako gobernu baten pean; hiru, Egiptoko Sinaiko basamortura kanporatzen dituzte. Txostenaren arabera, hirugarrena da gauzagarriena, beti ere "hierarkia politikoak" gogor eusten badie nazioarteko presioei, eta AEBen eta beste herrialde lagun batzuen sostengua irabazten badu. Agirian zehazten denez, gaur egun nazioarteko iritzi publikoa prestatuago dago

halakoetara, besteak beste dagoeneko Afganistan, Irak eta Siriako gerrek eragindako populazio mugimendu handiak ikusita dituelako. Jonathan Samirrek *Jewish Current*-en azaltzen duenez, iragan azaroaren 30ean Benjamin Netanyahu lehen ministroak palestinarrak beste herrialde batzuetan birkokatzeke proposamena landu zezala agindu zion Gerra Kabineteko Ron Dermer-i.

Funtsean, aspaldiko mamua berriz ari da dantzan Israelgo gizartean eta mandatarien artean, eta urriaren 7an Hamasek bideratutako erasoak, Israel Handiaren ametsa errealitate egiteko aukera moduan ikusten dute askok. Israelgo Armadak dagoeneko lortu du Gaza barruan diren 2,3 milioi palestinarratik ehunka mila iparretik hegora mugitzea; oro har, bonbak akuilu hartuta, palestinarrak atzera-aurrera ibili dituzte nahieran.

Milaka tona bonbekin Israelek suntsitu du jada Gazako hiri osoa, eta baita Zerrenda osoko eraikinen erdia baino gehiago ere. Hezkuntza, osasun eta bestelako azpiegitura ugari ere birrinduta daude. Israelgo Armadak berriz kanporatu du Gazako palestinarren gehiengoa beren etxeetatik, eta suntsipenak ez-lekuak bihurtu ditu haien herriak.

Gaza guztia bizitzeko ez-leku bihurtuta, Israelgo agintariak iheserako korridore "humanitarioa" egon daitezke presatzen, behingoz Gaza "leku seguru" bihurtzeko eta Israel Handirantz beste urrats esanguratsu bat emateko.

Ez dirudi samurra gaur egun horrelakorik irudikatzea, teoriarik AEBak eta Europar Batasuna horren aurka daude eta. Alabaina, horrek ez dirudi oztopo handia Israelek bere asmoak aurrera eraman ditzan, arrazoi askorengatik jadanik handiegia bihurtu da Ekialde Erdian. Nork irudika zezakeen Israelek Gazan gauzatu dituen sarraskiak eta suntsipena horren eroso eta erraz egin zitzakeenik -urtarrilaren 2an Gazan 22.000tik gora hildako jada-, nazioarteko potentzien konplizitate isilaren aurrean? AEBetako Estatu Departamenduak kritikatu egin du Israelgo hainbat ministrok Gaza palestinarrak husteko eta kolonoak itzultzeko egindako deia, baina Israelgo Segurtasun Nazionalerako eskuin muturreko Itamar Ben-Gvir ministroak argi erantzun dio X sare sozialean: "Begirune osoarekin, gu ez gara AEBetako beste izar bat. AEBak dira gure lagun onenak, baina edozeren gaitetik, guk egin behar dugu Israelgo Estatuarentzat onena dena". ●



ESKUZ IDATZITA



JOSEBE BLANCO
@HAUSNARREAN

Begi aurrean duzun hau eskuz dago idatzita, irakurle. Ordenagailuz idazten ditut normalean hemengoak, baina gaur gorputzak halaxe agindu dit, behar duela hemen bere arrastoa utzi, bere nekearen eta ezinen berri eman. Eta nor naiz ni gorputzari kontra egiteko, berak ere sufritzen badu? Izan ere, gorputza eta gainontzekoak atezuan dauzkat, abenduaren 15etik. Lo ere, gutxiago; eta ohea fakirren ohantze bilakatu zaigu. Gauaren erdian esnatzen gara, eta go-goan alegazioak, mezuak, bilerak eta deiak ditugu biraka. Loaren besoetan erori baino lehenagoko itolarriak zama ezartzen du, hemen, bularraren atzealdean. Bizkarra protestan da..

Haserre dago, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, abenduaren 15ean, bost zentral eoliko proiektuak argitaratu zirelako. Horietako bi Urola bailaran, bata bestearen ondoan: Buruzai eta Trekutz. Buruzai izenaren atzean Oleta, Izazpi eta Samiño mendiak daude. Trekutzen atzean, Irimo eta Meaka.

Ez gaitu harritu iragarkia Eguberrien atarian heltzeak –Energia Berriztagarrien plan sektoriala hauteskunde garaian etorri zen bezala–. Haserretu bai, eta genuen beldurra ikara bilakatu digu. Hilabeteko epea dugu Cilda Energy S.L.U. enpresak –Green Capital Power multinazionalak, alegia– aurkeztutako proiektuei helegiteak jartzeko, opor garai honek beharrezkoak diren eremu askotan eragina izan arren: abokatu-bulegoetan, udaletan, herritarrengan... Eta ez, ez da kasualitatea.

Hilabete honetan mila orrialde baino gehiago dituzten proiektuak irakurri eta aztertu behar ditugu, gerora eraginkorrak diren helegiteak aurkeztu ahal izateko. Herritarren gehiengoak ezer



asko ez dakienez, informazio ahalik eta osatuena ere zabaldu egin behar.

Irimo eta Meaka mendien defentsan herritarrok Antzuola eta Urretxuko udalekin batera ari gara. Herrigintzaren adibide garbia; multinazional baten bortxatik abiatuta, herritarrekiko konpromisoz eta arduraz jokatzeari, maite ditugun eta egiten gaituzten mendiak txikiziotik salbatzeko. Txikizio bere zentzu literalean; ezin baitira, bestela, tontorrean ezarri 200 metroko aerosorgailuak.

Kontuak bestelakoak dira Oleta, Izazpi eta Samiñoren kasuan. Gaur gaurkoz, herritarren babesa baino ez baitute mendiok. Ez da gutxi, baina agian ez nahikorik. Azkoitia, Azpeitia eta Zumarragako udalek –EAJ, EHBildu eta PSE, hurrenez hurren– ez omen dute inongo asmorik agertu mendi horiek Green Capital Power multinazionalaren atzaparretatik libratzeko. Herriarekiko ardura haizeak eraman omen du.

Alderdiei berdin die bertan dagoen ondare arkeologikoak. Berdin, babestu-

tako espezieen bizilekua izateak –batzuk desagertzeko arriskuan–. Berdin, mendi horiek euren herritarren ongizatean duten eraginak, eta herriei egiten dieten ekarpenak, denon arnaguneak diren heinean, besteak beste.

Bitartean, herritarrok erabaki dugu gure gain hartzea, denona dena defenditzeko ardura. Abokatu-bulego baten kontratazioak 7.500€ balio ditu. Gure poltsikoetarako zulo handi samarra izan arren, ez da asko mendi horien balioa zein den ikusita.

Onura publikoa bolo-bolo erabiltzen dute alderdietako ordezkariak landa-eremua eta natur-guneak multinazionaleri opari emateko. Ez ote da izango, ordea, onuragoa eta publikoagoa herritarroi mendi horiek dauden bezala ematen digutena?

Eskuok bideratu dute gorputzaren ezina paperera. Paperean irakurriko du gorputzak mendiarekiko maitasunak duen indarra. Eta iltzeak artilezko lastairra bilakatuko. ●

A ZE FAUNA!

KOSK EGITEN EZ DUEN TIGREA



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU
ARANZADIKO KIDEA

Erreketako tigre-burruntzia Europako burruntzia handienetakoa da. Gure lurretan, gainera, oso zabaldua dago eta erraza da erreka inguruan ikustea, etengabe hegan, gora eta behera. Arra eta emea oso antzekoak dira, ia berdinak sexu-organoak alde batera utzita.

Ez duela kosk egiten adierazi dut hasieran eta hori ez dator bat zabaldu ohi diren istorioekin. Mendebaldeko kulturetan odonatuei (sorgin-orratzak eta burruntziak) deabruaren lagunak izatea leporatu zitzaizkien duela mende batzuk. Bere begi handiek eta gizakioi “begira” jartzeak sinesmen oker horretan asko lagundu zuten. Gizakion okerrak eta ahuleziak behatuaz bazuten deabruari zer kontaktu gauean, horrek hortik aurrera jakin zezan non eraso egin pertsonok infernura bidean jartzeko. Zorionez, beste kultura batzuek (Ekialdekoak, batez ere: Japonia, Txina, India...) beste muturreko ikazkitzat hartu zituzten eta adorea, zintzotasuna, kuraia edo ausardiaren eredu izan dituzte, baita gaur egun ere. Odonatu espezie asko “baliogabeko” lekuetan bizi dira, badakizue “putzuak, urmaelak..., leku zikin eta eltxoz betetakoetan”, alegia. Leku horien benetako balioa ez dago, gaur egun, aldarrikatu beharrik, ezagu-



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU

pen minimo batzuk izanez gero, noski.

Tigre hegalarira itzulita, gure lurretan *Cordulegaster* generoak bi espezie ditu, oso-oso antzekoak, baina hedapenean eta behatzeko erraztasun mailan zerikusirik ez dutenak. Erreketako espezie honen hegaldia aparta da, oso gustukoa du baso bideetan, erreketatik gertukoetan, gora eta behera hegan aritzea. Jakina, bitartean harrapa ditzakeen intsektuz elikatuz doa: hegan egin bitartean, harrapakinak txikiak badira; edo pausatuta, tamaina dezente ha-

ERREKETAKO TIGRE-BURRUNTZIA *Cordulegaster boltonii*

TALDEA: Ornogabea/Intsektua/
Odonata/ Anisoptera

NEURRIA: 7-8 cm (ale batzuk
handiagoak).

NON BIZI DA? Erreka inguruan.

ZER JATEN DU? Ornogabeak:
intsektuak, armiarmak...

BABES MAILA: Ez dago babestuta.

rrapakinak badira. Espezie honi sarritan leporatu zaio erle-jale espezializatua izatea, eta horrek ere ez dio mesede handirik egin, nahiz eta ezaugarri okerra izan. Eta salaketa okerra da oso, Erreketako tigre-burruntzia, gairontzeko odonatuak bezalaxe, intsektu “oportunista” baita. Tarteke erleak jaten ditu, bai, baina ez da espreski erle bila joaten. Guk letxuga bat jateagatik belarjaleak garella esatea bezala da hori! Ahal duena, harrapatzen duena, jaten du, beste odonatuak barne...

Bere kolorazioa beltza eta horria da eta bere begiak berdeak. Abdomena luzea da, zilindrikoa. Emeek arrautzak jartzeko obipositore ikusgarri bat dute, ezpata itxurakoa, eta miragarria da errekestoen ertzetako lokatz eta uretan arrautzak txertatzen ikustea, hegaldi bertikala burutzen duten bitartean, gora eta behera, zast-zast! Arrautzatik ateratako larba erreka-hondoko lokatzetan ezkutatuta biziko da, azken azal-aldaketa burutu eta airea konkistatzen duen arte. Odonatu arrek ugaltze-aparatua bi zatitan dute, eta estalketa burutzerakoan “bihotz” irudi harrigarria osatzen dute emearen eta arraren artean. Baina tigre hau zaila da, oso zaila, horrelakoetan ikusi ahal izatea... Ez ordea hegan, uztailan eta abuztuan. ●

ESKERRIK ASKO, AZA ANDEREA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Aza jendea onenean dago. Azatarrak, egia esanda, beti onak, baina neguan onenak: hotzak barrenak mugitzen dizkio eta ez dakit zer gertatzen zaion baina hotzak pasatako azaren dasta hotzik pasa gabekoarena baino askoz ere gozoagoa da. Hostoa jaten diegun azekin igartzen da gozatze hori: kofatzen den aza, azakoba, aza kobatua, aza-grama, aza-groma, aza-gurumea, edo errepolloa deitutakoa (*Brassica oleracea* var. *capitata*), aza zuria edo kukulu aza (*Brassica oleracea* var. *capitata* f. *alba*), aza zorrotza (*Brassica oleracea* var. *capitata* f. *acuta*), burutzen ez den Bitoriako aza, gallego aza, txakur-aza, ahuntz-aza, zaldi-aza, bazka-aza, zuhain-aza, hostotako aza, hostokatzeko aza, aza beltza, aza berdea edo aza ximatsa deiturikoa (*Brassica oleracea* var. *viridis*), aza berde kizkurra edo kale aza (*Brassica oleracea* var. *sabellica*), aza kizkurra, aza izurtua, aza izurra edo aza ximala (*Brassica oleracea* var. *sabauda*), aza gorria edo lonbardarra (*Brassica oleracea* var. *capitata* f. *rubra*) eta bruselaza (*Brassica oleracea* var. *gemmifera*).

Neguko solstizioa garai batean azao-lioekin ospatzen zela aipatu lagunartean, eta hara non ateratzen den hotzak azak gozatzen dituelako arrazoia. Ikasten ari gara. Agi danean gaueko hotzak eta areago izozteak azaren zaporea eraldatu eta hobetzen du hostoetako azukrea almidoi bihurtu ezean; horrela zapora atsegina lortzen da. Lan hori landarean dauden entzimek egiten dute. Landareak hotzarekin metabolismoa makaldu egiten du, entzimek azukrea almidoitzeke lana ere moteldu; aldiz,



Aza elurretan.

JAKOBA ERREKONDO / CC-BY-SA

fotosintesiak jarraitzen du eta azukrea sortu eta sortu; horrela, landarea gozago bihurtzen da.

Geurean sonatuak dira Oletako azak, onenak agi danean, han, izan ere, Aramaioko auzo horretan bada hotzetik... Izozte eder baten ondoren egun batzuk utzi eta jan azaolioa, aza-ilarra, aza-zopa, aza-kozina, aza-lapikoa, aza-leikoa edo aza-salda. Jan azatik.

Aza milaka urtean mahaian lagun izan dugu; gure aita zenak zioen trailerkadak aza jana zela eta gerora ez zuen ikusi ere egin nahi. Elkarbizitza hartatik

gurdikada izen eta ezizen. Aza kirten kirtenari, buruhandiari azaburu, belarri xabalari aza hosto, pagotxa duenak aza gizenak egin ditu, ez ikusiarena egiten duenak azak eman, ziria sartu duenak azak jo, jo eta muturra txikitzean aurpegia azaorria bezala utzi, lehen gutxi eta azak ontzeko, musean eskua kentzen duenak eskuari azorria ematen dio... Eta galdu ditugunak.

Hotz punttua izan dugu eta jan dezagun bada aza, edozein aza. Osasunerako ezin hobea, urteari indarrez ekiteko. Eskerrik asko, aza anderea. ●

KIBBI

ZEELANDA BERRIKOEI EDO KIWIEI INBIDIARIK EZ BAZTAN ETA BIDASOA ALDEAN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Urte mordoxka dira Bertizaraneko eta Malerreka-kako zenbait herritan kiwiondoak paisaiaren parte izaten hasi zirela. “2000an hasi nintzen ni kiwiak ekoizten, baina garai hartan kanpoko enpresa bati saltzen genizkion. Gure proiektu propioa 2008an abiatu genuen”, adierazi du Lander Sagaseta Vertiz ekoizleak. Kibbi SAT da proiektua, Maite Urroz Oyarzabal emaztearekin eta Joseba Sarratea Oyarzabal lehengusuarekin martxan jarri zuena. W letraz idatzi beharrean, Baztan eta Bidasoako bi B letrei erreferentzia egin diote izenean. Umorez dio, “kibbiak” direla haienak.

PROIEKTU PROPIORAKO ETA EKOLOGIKORAKO JAUZIA

Euskal Herrian kiwi ekoizpenak azken urteetan izan duen bilakaeraz zertzelada batzuk eman dizkigu Sagasetak. 1985 inguruan, Lekarozen enpresa bat sortu zen eta kiwi landaketak egiten hasi zen, Nafarroa eta Gipuzkoako zenbait tokitan. Galiziako enpresa handi bati saltzen zioten produktua horiek, baina, 2008 aldean, enpresa hark atzera egin eta landaketa asko utzi egin zituzten. “Guk ere haientzat egiten genuen lan, eta landaketa bertan behera utziko zutelaren esan zutenean pena handia eman zigun. Haiei ekonomikoki ez zitzaizkien interesatzen, baina guretzat hor bazegoen beste zerbait”, dio. Herrian bertan bizi nahi zuten eta bizimodu horrekin jarrai-



tu, beraz, haien kontura aurrera egiteko erabakia hartu zuten azkenean.


Jauzi hori egiteko orduan, gainera, beste erabaki garrantzitsu bat ere hartu zuten: ekologikora pasatzea. “Hasieran merkatuari begira hasi ginen ekologikoan ekoizten, merkatu konbentzionalean fruta txikia ez delako behar bezala baloratzen. Baina, urteotan konbentzitu naiz eredu ekologikoa dela ekoizteko modu

interesgarriena, nabari da onura lurrean eta zuhaitzetan”, azaldu du. Nitrogenodun ongarririk eta herbizidarik gabe egiten dute lan, beraz, baina arazo handiegirik ez dute, kiwiek ez baitute ia izurrite edo eritasunik jasaten. Zortzi bat lagun ari dira lanean Kibbin, baina fruta bilketa garaian hogeiz izatera ere iristen dira.

KIWI EKOIZPENERAKO INGURU APROPOSA

Negu hotzak eta udan hezetasuna behar ditu kiwiak, eta beraz, klima aldetik proposak dira Baztan, Bidasoa eta Malerreka inguruak. Donezteben, Narbarren eta Sunbillan 16 kiwi hektarea dituzte landatuta. Ekoizpen kozkorra izanik, zati handi bat hurbileko dendetan saldu arren, kanpora ere saltzen dute handizkako merkatarien bidez. “Saiaitzen gara merkatu ekologikoan bideratzen gehiena, baita hemen inguruko denda txikietara ere zuzenean guk eramaten, 10 kiloko kaxetan. Alegia, ahal den heinean bezeroekin harreman zuzena izan nahi dugu”, dio.

Berriki, haien webgunetik erosteko aukera jarri dute. 5 kiloko kaxak saltzen dituzte bertan eta paketeria bidez bidaltzen. “Nafarroako zenbait saretan ere parte hartzen dugu, Ekoalden edo Nafarroako Nekazaritza Ekologiko Enpresen Elkartearen adibidez”, gehitu du. Kiwien produktzioa osatzeko, gainera, sagardotarako sagarrak ere ekoizten dituzte Euskal Herriko hainbat sagardotegi ekologikori saltzeko. ●



Venus ez zen jaio Willendorfen



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Willendorf (Austria), 1908. Wachau bailarako aztarnategi batean, Josef Szombathy arkeologoak emakumezko baten estatua antropomorfo txiki bat aurkitu zuen, 11 cm ingurukoa, harrian zizelkatua eta okre gorritz tindatua.

Orduz geroztik, Paleolitoko venusik ezagunena da, eta kanpotik behin eta berriro aztertu dute. Hala ere, oso gutxi dakigu bere jatorriaz, egiteko erabili zuten metodoaz edo esanahiaz. Horregatik, amaitu berri den urtean, Vienako Unibertsitateko eta hiri bereko Historia Naturaleko Museoko ikerlariak barrutik aztertu dute, metodo berritzailea erabiliz: mikrotomografia konputerizatua.

Venusa nagusiki oolita izeneko arroka egina dago, eta ikerlariak ateratako lehenengo ondorioa izan da barrualdea ez duela batere uniforme, oolita horrek jatorri anitzeko arroka dituela eta sedimentuak hainbat tamaina eta dentsitateetakoak direla. Gainera, limonitazko sei ale handiago ere identifikatu dituzte, venusak azalean dituen zuloak azalduko lituzketenak. "Limonita gogorrek ziurrenik eztanda egin zuten artista eskulturatxoak zizelkatzen ari zela eta, itxuraz, zuloetako bat aprobetxatu zuen emakumearen zilborra egiteko", ikerlarien ustez. Egileak erabaki egokia hartu zuen xehetasun horretarako eta, oro har, materiala aukeratzeko. Paleolitoko venusak hezurrez edo boliz eginak egon ohi dira, baina Willendorfekoaren egileak oolita zati oso porotsua erabili zuen, lantzeko askoz errazagoa.

UKRAINA ALA ITALIA?

Ikerlan berriak, nagusiki, piezaren ja-



VIENAKO HISTORIA NATURALEKO MUSEOA

torriari buruzko informazioa ekarri du. Venusaren harriaren aleak hainbat jatorriko milaka laginekin alderatuta, lehen ere jakina zena baieztatu zuten: harri hori ez dela Willendorf ingurukoa. Alderaketa prozesuan bi lagin hurbildu ziren materialaren ezaugarrietara. Jatorri posible horietako bat Ukraina ekialdea da, Willendorfetik 1.600 km

ingurura. Errusia hegoaldean Austriakoaren antzekoak diren hainbat venus aurkitu dira, berriagoak diren arren, eta horrek hipotesi hori indartzen du.

Hala ere, hipotesi nagusia bigarren aukera da: eskulturak –edo materialak behintzat– Italia iparraldean du jatorria, Gardako lakuaren inguruan. Puntu hori askoz gertuago dago Austriatik Ukrainakoa baino, baina tartean Alpeak gaintu behar izan zituzten. Aukeretako bat Alpeak inguratu eta Panoniako lautadan zehar Austriara iristea litzateke; bide hau beste ikerlari batzuek deskribatu zuten duela urte batzuk, simulazioak erabilia.

Gardatik Willendorfera iristeko bide laburrena Alpeak zeharkatzea da, baina adituek uste dute oso zaila izango zela duela 30.000 urte glaziarrek estalita mendilerroa onik gaintitzea. Baina bada beste bide laburrago bat, 730 km-koa, Adigio, Eno eta Danubio ibaien haranetatik igarotzen dena. Bidearen zatirik handiena 1.000 metroko altueratik behera egin daiteke eta soilik 35 km tartea dago hortik gora. Adituen ustez, bide hori egitea posible litzateke.

Hipotesiak hipotesi, jatorritik Willendorferako bidea ez zuten segidan egingo; ziurrenik, piezak hainbat belaunaldi behar izan zituzten aurkitu zuten puntura iristeko. Gravette aldiko gizakiek kokaleku egokiak bilatzen zituzten etengabe. Klima aldatzen zenean, harrapakinak urritzen zirenean... beste toki batera joaten ziren, gehienetan ibaien ibilgua aprobetxatuz.

Oraindik ere oso gutxi dakigu Willendorfeko venusari buruz, baina pixka bat gehiago dakigu duela 30.000 urteko gizakien mugikortasunari buruz. ●

ARGIA SARIAK



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

2023ko Argia Sarietan 1973tik harpidedun direnak gonbidatu ziren.

Argia Sariak ate joka

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Urtarrilaren 26a aspaldi dago boroilduta Lasarte-Oriako egoitzako egutegian. Durangoko Azokan gastatu dituzte batzuk pilak, beste batzuen buruak 2024ko Argia Sarietan ziren bitartean. Hala funtzionatzen du etxe honek, taldean eta taldeka, azken urteetan behintzat; eta badirudi funtzionatzen duela. Badatoz 35. Argia Sariak. Antolatu dituzte. Dagoeneko saridunak nor diren erabakita dago, eguraldi ona erreserbatuta, Atxega Jauregiko menua zehaztuta... Familia elkartzea falta!

Bukatu den urtearen hondarrean galdetu diot Argia Sarietako lantaldeari ea lotuta al dagoen dena eta erantzun gogorra jaso dut. Gogorra edo, nola adierazi... batek, hitzik gabe, baina zehar-begiratuarekin esan nahi izan dit ea zer pentsatzen dudana; bigarrenak, "ba noski, urtero bezala" lehor batekin azaldu dit hiru aste falta direla eta prest dagoela guztia; eta, besteak, gelako tentsioa ikusita, tonu errukierrago batean kontatu dit pixka bat sakonago nola dagoen gaia. Total, baietz, lotuta omen dena.

Erantzunen lehorkeriari aurre egin nahian, zirikan hasi naiz, eta ahoan

irribarrea dudala hasi naiz esaten ez adarrrik jotzeko, behin baino gehiagotan ibiliko zirela azken orduan sariduna aldatzen, Merezimenduzko sari bat pentsatuta eduki eta azken orduan bigarren bat harri azpitik ateratzen... Eta lehor ari zaidanak ahapeka: "Urteren batean bost egun lehenago erabakitako saririk izan da bai, zuk esan duzun bezala, harri azpitik aterata!"

Ezustean asmatu dut, beraz. Alegia, taldean antolatzen direla etxe honetan gauzak, bai; emaitza ona izaten dela, bai; baina ezin sinetsi, aurtengo urtero bezala, garaiz eta dena lotuta dagoenik.

Ai, ai. Orain ohartu naiz hizketaldia abenduaren 28an izan genuela. Telefonoa hartu dut: "Aizu, aurrekoan esan zenidaten ba bezperan pentsatutako saridunak ere izaten direla?". Bapo egin du barre telefonoaren bestaldekoak.

Aurtengo sarituak izateko proposamenak bidaltzeko mezua zabaldu zitzaion publikoari, kolaboratzaile sareari ere egin zitzaigun gonbidapena, eta jasotakoak eta erredakzioan eta taldean proposatutakoak aztertuta atera dituzte 2024ko euskarazko kazetaritza eta komunikazioko saridunak.

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

“ ”

“Euskaraz delako eta ARGIAK idatzitako artikuluak irakurtzeko aukera izan dudanean, ondo idatzita egoteaz gain, oso gai interesgarriak jorratzen direla iruditzen zaidalako”.

Tolosatik Xabierrek

“Euskal errepublikak gizarte eredu kritikoa izateko kazetaritza independente eta kritikoaren beharra dauka. ARGIAK bide horretan ezinbesteko ekarpena egiten du eta nire aletxoarekin, neurri berean, ekarpentxoak egin nahi dut”.

Donostiatik Xabierrek

FAMILIAKO KIDEAK

Hainbat alorretako hamaika gonbidatu izaten dira Atxega Jauregian biltzen direnak, baina lehengo urtean lehen aldiz izan ziren ARGIAko harpidedun batzuk bertan.

ARGIA proiektua denbora luzez babestu duten lagunei eskerrak emateko baliatzen hasi dira sari banaketa eguna. Iaz 50 urtetik gora, hau da, 1973tik harpidedun diren lagunak gonbidatu zituzten. Emaitzarekin pozik, urtero errepikatuko dute formula. Aurtengo 1974tik aurrerakoak sartuko dira zakuan. Aukeratzeko lanak izango dituzte ARGIAkoek, 200dik gora harpidedun baitira bizitza ia osoa etxe honetan egin dutenak, eta mahaia, berriz, zortzikoa da. Inor hasez ez dadin, ARGIAkoek esan didate hemen eskerrak emateko denei. ●

“ ”

Zinemaren industria sendoa nahi badugu, formatzeko bideak eskaini behar ditugu

Ander Sagardoy Zine ekoizlea

Filmetako kredituetan toki esanguratsua du ekoizleak. Hamar ikusletik bederatzik, ordea, ez genuke asmatuko esaten haren lana zein den. Ander Sagardoyrengana jo dugu erantzun bila. Eneko anaiarekin jarri zuen martxan Sumendi Filmak, eta bertako jarduna uztartzen du Irusoin ekoiztetxe puskaz handiagoan egiten duen lanarekin. Iaz bezala, aurten ere, *Zinema ekoizpena: sorkuntzatik esplotaziora* ikastaroa eskainiko du Donostiako Larrotxene kultur etxean.

 LANDER ARRETXEAA BEREZIARTUA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

Has gaitezen gaizki-ulertuei izkin egiten. Filmetako kredituei begira jarrita, ekoizpenari edo produkzioari erreferentzia egiten dioten izen asko topa daitezke: ekoizlea, ekoizle eragilea, produkzio zuzendaria... Zer da zer? Eta zein da zure rola?

Ikusten ditugun kredituak gaztelaniaz dira askotan, eta bai, hor kategoriaz askok daramate produkzio hitza, baina ez dira gauza bera. Ekoizlea, asko laburtzearen, filmaren jabea da. Eskubideak erosten ditu eta saiatzeko pelikula hori finantziazeko bideak aurkitzen, dela telebistei salduta edo dela dirulaguntzen bidez. Behin behar den diru hori badagoenean,

ekoizle eragilea sartzen da normalean, kontratatu gisa, jatorrizko ekoizlea ordezkatzeko eta proiektua gainbegiratzeko. Eta gero, filma gauzatzeko bidean jarri behar denean, produkzio zuzendaria eta bere azpitik dauden produkzio laguntzaileak-eta sartzen dira prozesuan. Produkzio zuzendariak erabakitzen du aurrekontua nola kudeatu. Azken zati hori, filmatzea bideratzearekin lotura duena, ez da nire lana.

Ekoizlearen lekua bulegoa da, hortaz. Kirol taldeen egiturekin konpara liteke.

Guk presidentearen bulegoko lana egiten

dugu, aurrekontuekin aritzen gara gora eta behera, baina “jokatzen” dutenekin harremanetan daudenak, eguneroko erabakiak hartzen dituztenak, beste batzuk dira. Normalean ez gara errodajeetara joaten. Gu proiektu berriak aurkezten aritzen gara, banatzaileekin elkartzen.... Bitxia da: egon zaitezke bi urte proiektu baten finantziazioa borrokatzen, eta us-tez politena datorrenean, espazioak konpartitzea aktoreekin, zuzendariarekin... atera egiten gara prozesutik. Grabatutako materiala heltzen zait bulegora, eta bertatik ikusten dut pelikula zer forma ari den hartzen.

Irusoin eta Sumendi, Sumendi eta Irusoin. Bietan zara ekoizle, batean langile, bestean jabe. Nola uztartzen dira bi zereginak?

Bartzelonako ekoiztetxe batean ari nintzen lanean Sumendi sortu genuenean, eta nire lanalditik kanpoko orduetan hasi nintzen horrekin, proiektu txikiekin, lehenengo pausoak ematen. Horretan ari nintzela atera zen Irusoinen lanean has-teko aukera, eta logika berarekin jarraitu dut geroztik. Sumendik baimentzen dit hurbileko jendearekin lan egitea, hainbesteko esperientzia ez duenarekin, adibidez. Ikasi ere gehiago edo desberdin ikasten da ekoiztetxea zurea denean. Iru-



soinek egonkortasuna eskaintzen dit eta Sumendi osagarri bat da, gustuko proiektu txikiagoak, Eneko anaiarenak, besteak beste, aurrera eramateko balio diguna.

Ezagutzen ez dituenarentzat, zenbatekoa da bien dimentsioaren arteko aldea?

Euskal Herri mailan, Irusoin da kontsolidatuen dagoen zine ekoiztetxeetako bat eta esanguratsua da Espainiako Estatu osoa hartuta ere, batez ere, Moriartiren *Handia*, *Loreak*, *Trinchera Infinita* eta abar ekoitzi dituelako. Horrek ematen dio zilegitasuna eta ahalmena proiektu potoloak egiteko, eta modu jarraitu batean egiteko lan. Gero badaude ekoiztetxe txikiagoak, hasiberriak direnak eta nagusiki film laburrak egiten dituztenak. Horietako bat da Sumendi.

Film laburrek ikusleonganaino heltzeko erakusleiho gutxi dituzte. Zergatik egiten dira, orduan, horrenbeste?

Laburrak izaten dira, askotan, zuzendari baten lehenengo lanak. Izaten dira probatzeko, ikusteko ea zerbait gustukoa egiteko gai zaren, jolasteko... Aldi berean, badira modu bat aurrerago film luzeak egiteko dauden dirulaguntza deialdi publikoetan aukera gehiago izateko. Labor batekin lortzen baduzu ibilbide bat, onartzen badute jaialdi esanguratsuetan, aukera izango duzu gero luzeak egiteko. Hala ez bada, oso zaila izango zaizu. Bien ibilbidea hartzen da aintzat deialdi publiko horietan, bai zuzendaria-rena, baita ekoiztetxearena edo ekoizlearena berarena ere.

Asko ari gara dirulaguntzak aipatzen.

Dirulaguntza publikoak dira, gaur egun, ekoizten diren filmen oinarri ekonomiko nagusia. Film luzeetan nagusiki, baina baita laburretan ere. Muga batzuk badaude: ezin da ehuneko ehuna diru publikoz ordaindu, eta hainbat aldagairen arabera, ardurakarguen generoa edo hizkuntza tartean, aldatu egiten da gehienezko ehuneko hori. Baina kasu guztietan, dirulaguntza publikoak ulertzea eta jakitea gero zer derrigortasun dakarren horrek, ezinbestekoa da ekoizle lana egiteko. Askotan hori da proiektu bat martxan jarriko den ala ez ebatziko duena.

Proiektu zirriborro asko jasotzen dituzuela entzuna dut, nola Sumendin

hala Irusoinen. Baina ezezko asko eman behar izaten dituzue.

Guk, proposamenak jasotzen ditugunean, etengabe egiten diogu galdera gure buruari: merezi du denbora inbertitzeak proiektu hau altxatzen saiatzen? Gidoia hartzen dugu aintzat, noski. Baina gauza gehiago ere bai: proiektuaren egingarritasuna, zuzendariaren ibilbidea... eta filtro horiek guztiak pasata ere, ezin dugu beti baiezkorik eman. Filmatze bat zazpi aste izan daitezke. Baina guk, proiektu bat hartzen dugunetik estreinatzen den arte, hiru edo lau urte ematen ditugu lanean.

Proiektu bati baiezkua emateak esan nahi du beste asko kanpoan uztea. Irusoinen, adididez, 2025 edo 2026an zein proiektu aurkeztuko dugun ari gara aztertzen orain. Hori da ekoizlearen lana, beti datorrenari begira egotea.

Ekoiztetxe gazteen agerpenak ahalbidetzen du gidoilari, zuzendari edo teknikari gazteek bidea errazago egin ahal izatea?

Uste dut baietz. Zu gazte sortzailea bazara eta ikusten baduzu ekoizle gazte bat, aurreikusten duzu nolabaiteko sintonia bat izango duzuela. Ekoiztetxe gazteek langile edo sortzaile gaztearen sarbidea errazten dute, baita harreman horizontalagoak izatea ere. Adinaren faktorea dago, batetik, eta bestetik, ez gaudenez industriaren dinamikan horrenbeste sartuta, gaitasun gehiago dugu gauza batzuk kuestionatzeko. Ez da erraza, erroldajeen dinamikak oso hierarkikoak

“ ”

Labur batekin lortzen baduzu ibilbide bat, onartzen badute jaialdi esanguratsuetan, aukera izango duzu gero luzeak egiteko. Hala ez bada, oso zaila izango da

direrako, baina gu saiatzen gara boterea ahal beste banatzen.

Testuinguru horretan erabaki duzu ekoizle lan horretan hasi nahi dutenentzako ekoizpen ikastaroa eskaintzea.

Proposamena Xanti Salvador soinu-gilearen bidez heldu zitzaidan. Gonbidatu ninduen klase labur bat ematera Larrotxene kultur etxean eskaintzen duen kurtsuan, eta Unai Gerra bertako arduradunak proposatu zidan, horren ostean, ikastaro bat nahieran diseinatzea. Ez nintzen aurrez klaserik emandakoa, eta erronka gisa hartu nuen. Aurreikusten nuen hasiberria edo hasteko gogoz dagoen jendea hurbilduko zela, eta hasiera horretan jarri nuen fokoa: lehenengo pausoak modu eraginkor batean emateko moduetan. Laburrak dira horretarako bide errazena.

Jokabide eskuzabala dirudi: dirulaguntzak mugatuak diren

neurrian, informazio faltak jada arituak direnei edo zaretenei mesede egiten dizue.

Badago lehiakortasunaren mobida hori: hau azalduz ez ote nabil nire buruari harriak botatzen? Baina egia esan, laburrak eginez ez du inork bizibidea ateratzen.

Luzeetan bestelakoa da egoera: EAEn, adibidez, bospasei proiektu laguntzen dira urtean, eta hor bai, lehia handia dago. Hor larri aritzen gara. Ez badizute diru-laguntza ematen, lan asko geratu daiteke “ezerezean”. Beraz, galdera da: nik egin behar diot uko hasiberriei laguntzeari, nire oraingo egoera pribilegiatua galtzeko beldur? Nahiko jokabide arriskutsua da. Ia denoi lagundu digute inoiz. Zuzendari eta teknikari onak nahi ditut ondoan, maila eta esperientzia dutenak, eta hori proiektuak eginez lortzen da. Eta horretarako, proiektuak egin daitezten, ekoizle abilak ere behar ditugu.

Bi asteko ikastaroak bete dezake euskarazko formakuntzan dagoen hutsunea?

Larrotxenen bada jendea mimo eta gogo handiz egiten duena lan, ikastaro horiek atera daitezten. Baina ez da nahikoa. Euskal Herrian ez dago euskarazko unibertsitate edo kurtsu publikorik ekoizpenaren lanbidea, edo zinearena, modu arautu batean jasotzen duenik. Bartzelonan, Madrilen, Parisen edo beste hainbat tokitan bai. Eta jendeak, ahal duenak, hori egiten du: hara joan.

Denon erantzukizuna da, batez ere erakunde publikoena, formakuntza hori hemen jasotzeko baliabideak eskaintzea. Beharrezkoa da, zinema-industria sendo bat nahi badugu. Lan asko dago orain zinemaren industrian, baina jendeari eman behar zaio horretarako prestatzeko aukera, ibili gabe derrigor meritario, bekadun edo antzeko lan prekarioetan, auskalo zenbat urtez.

Lan asko dagoela diozu. Bizkaian, adibidez, film eta telesail mordoak egin dira azken urteotan.

Pizgarri fiskalen kontua sartzen da hor. Erabaki politikoa da, Bizkaian hartu dena, zinema industria laguntzeko. Beste sektore askotan egiten da, eta zinema ere beti existitu dira, baina kontua da Bizkaian ohiko ehunekoa igo dutela. Orain, diru berdina Gipuzkoan, Madrilen edo Bizkaian gastatuta, etekin gehiago ateratzen zaio Bizkaian. Horrek eragin du, besteak beste, Espainiako Estatuko ekoiztetxe askok haien egoitza Bizkaia





ekartzea. Eta arriskutsua da, errealitatea desitxuratzen duelako. Horrelako neurriak daudenean, bermatu behar da bertako ekoiztetxeek, langileek eta istorioek espazioa izango dutela sor daitekeen ekoiztetxe oihan zoro horretan.

Eta gero badago bigarren efektu bat: pizgarriek bultzatzen dituztela ekoiztetxeak hemengo teknikariekin lan egitera. Hori ona da, baina ez erabat. Plataforma handiak datoz hona superproduktzioak egitera, hartzen dituzte langile pila bat, eta orain guk, kasu batzuetan, teknika-riak kanpoan bilatu behar izaten ditugu.

Arabian eta Gipuzkoan ere neurria berdindu egingo dela aurreikusten duzu?

Bai, Gipuzkoak eta Arabak erabaki dute berdindu egingo dutela neurria, eta epe ertainean, Espainiako Estatuan ere izango dira aldaketak, ziur asko. Horregatik, behin-behinean ona izanik ere, luzera begira arriskutsua da. Hortik datozen onurak eta dinamikak ez dute zertan egonkorrak izan.

Sumendirekin zure anaia Enekok zuzendu duen lehen film laburra aurkeztu berri duzue: *Betiko gaua*. Inflexio puntua da zuen ibilbidean? Sumendik ekoiztiko zuen lehen laburra

“ ”

Jendeari eman behar zaio formatzeko aukera, ibili gabe derrigor meritorio, bekadun edo antzeko lan prekarioetan, auskalo zenbat urtez

izatekoa zen proiektu hau. Gidoia duela hiru urte idatzi zuten Nerea Ibarzabalek eta Eneko Sagardoyk. Sumendi eta Galapan ekoiztetxeen artean ekoiztu nahi genuen, eta orduantxe eman zidan lehenengo krisiak, erantzukizun handia zelako, oso gertukoa nuelako dena... Erabaki genuen atzeratzea, data argirik gabe.

Zentzu horretan, polita izan da azkenean *Betiko gaua* egitea, gogorarazi digulako Sumendiren hasierako grina eta zentzua. Egin ditugu gauzak tarte horretan, zorionez, baina hau egin ahal izateak ilusio izugarria egin digu. Miren Gaztañaga lagun mina da aktore, eta Elena Irureta ere izan da gurekin, baita talde tekniko zoragarria ere. Orain jaial-

dietan ari gara filma mugitzen, baina Movistarren egongo da ekainetik aurrera, eta Primeranen ere ikusi ahal izango dela espero dut.


Irusoinen, aldiz, telesail bat ekoiztu berri duzue, zer eta Disneyrentzat: *Cristobal Balentziagaren biopica*. Nola eragiten dizue ekoiztetxei plataformen enkarguz edo plataformak bezero hartuta aritzeak? Bitartekari huts bihurtzeko arriskua dakar?

Plataforma bat sartzen denean tartean, proiektuaren jabetza plataformarena da. Sentitu dezakezu oso zure, baina plataforma sartzea onartu duzunean, hirugarren batentzat lanean ari den zerbitzu-emaile bat baino ez zara. Gure kasuan, hala ere, plataforma ez da oso gainean egon. Ziur asko, Moriartiko zuzendarien izena eta sinadura nahi zutelako, eta konfiantza horrek ahalbidetu duelako harreman ez batere intrusiboa izatea. Ikusten dituzte atalak eta ematen dute haien iritzia, baina zorionez, gure esperientzia oso askea izan da. Baina bai, plataformek aukera dute erabaki guztiak baldintzatuzko: errodajea, kastin-gean, muntaian, izenburuan... Ekoizleak normalean duen jabetza eta boterea galtzen du. ●



LIBURUA

Poemak fruitu



DANI BLANCO

BI ALDIZ IRAUN OIHANE ZUBEROA GARMENDIA

BALEA ZURIA, 2023

MADDI GALDOS ARETA

Ontzea deritzo fruituak heldu edo umotzeari, hau da, loreetatik sortutakoak kontsumitzeko prest egon bitarte gertatzen den prozesu multzoari. Ontzea deritzo, halaber, idazlan bat osatzeari: tartean, zirriborratu, egin, desegin eta orrazteari, alegia, idazlearen gogotik testu bat sortzerainoko urrats multzoari. Ondutako poema eta fruituak dakarzkigu Oihane Zuberoa Garmendiak (Erronkari, 1993) berriki argitaratu duen *Bi aldiz iraun* (Balea Zuria, 2023) bildumak.

Poemak lau ataletan sailkatuta daude, eta bakoitzak fruta-arbola edo zuhaixka baten latinezko deitura zientifikoa du izenburu: *Cydonia oblonga*, *Punica granatum*, *Prunus avium* eta *Rubus idaeus*. Bestela esatearren, irasagarrendoa, mingranondoa, basagereziondoda eta mugurdiondoda dira poemak

sailkatzeaz gain urtaroei eginiko erreferentzia bidez denboraren joana adierazten duten landareak. Izan ere, atal bakoitzak auzi jakinak hizpide dituen arren, denbora zein aldaketa ardatz ditu bildumak: "etxerako gordetzen den / artilezko jertse borladunean, / garbitzearen garbitzez / zartaginetik desagertzen ez diren / olio arrastoe-tan: / denbora neurtzeko / hamaika modu dago".

Azpimarratzekoa da, formalki, azken atala dela besteengandik gehien bereizten dena. Hezurgabe diren mokadu bailiran, labur, hitz eta esanahi zerrenda bat ondu du erronkariarrak, liburua ixteaz gain aurretik diren poemengandik ere biltzen dituena.

Heriotza, desira, hizkuntzaren gale-rra eta bestetzuei eusten die Zuberoak orriotan, oroimenaren eta ahanztura-

ren, edota Mnemosine eta Leteoren arteko tenkan. Ordea, poemoi ez darie oroiminak ekar dezakeen laborri edo hersturarik: orekaren aldekoa da ahots poetikoa, iraganaren arbola tarteka kimatzearen aldekoa. Horretarako, irudi ederrak ondu ditu erronkariarrak, zentzumen oro martxan jarrarazten dituztenak: esku izurtuak, zumezko saskia, puskak almibarretan eta gaztaina usainez blaitutako kaleak. Gomuta horiez gain, kultura-ondarearen eragina ere nabarmena da liburuan: oro har kultura klasikoari dagozkion erreferentziak ugariak dira, eta azalak berak ere eman dezake zer pentsatua proposatzen den oturuntzaren inguruan.

Badugu zer dastatu, beraz: irakurlearen begi eta ahosabaiarentzat gozagarri den hitzezko mazedonia da *Bi aldiz iraun*, gazitik gozorarainokoa dena. ●



MUSIKA

Makina lepo



EITB KULTURA

XALBA RAMIREZ

Intelligence Dance Music deitzen zaion estiloan mugitu da Ke Lepo. Musika estilo batentzako izen ponposoagorik okurrizten inori? Technoaren eta ambientaren garapen mota bat da IDMA; apur bat sofisticatuagoa izateaz gain, dantzalekurako pentsatuta ez dagoena. Apala eta zaratsua, melodikoa eta disonantea, erritmikoa eta lasaia.

Esperimentazioan oinarritutako musika horrek artistaren ibilbidea jartzen du erdigunean, barrutik kanpora arituko balitz bezala, eta ez kanpotik barrura. Mark Fisherrek Burialen inguruko post-ravean topatu zituen garaiko Londres irakurtzeko gakoak. No Future berri bat, aldarrikapenik gabea, T.S. Elioteren eran:

“Honela amaitzen da mundua, ez leherketatekin, asperen batekin baizik”.

Kontrasteen diskoa da *Izpi*. Arreta jartzen ez badiozu, kantu bakarra izan daiteke, bidaia bat, batetik bestera mugitzen zaituena. *Barru paxira*-n sartzen da lasaitasuna, eta horren ondo neurtutako sintetizagailu zaharrekin egindako koltxoia. Bai, Alejo Orbegozo musikari zestoarrak bere sintetizagailu eta katxarro zahar guztiak jarri ditu martxan. Vintageak badielako soinu berezia, egungo preseten diktaduratik aldentu, eta arima pixka bat esleitzen diona konposizioari.

Makinengan konfiantza jartzen dugu. Gehiago harrituko gaitu sintetizagailu modular batek egiten duen ausazko po-



KE LEPO

IZPI

FORBIDDEN COLOURS, 2023

lirritmiak, gure pop talde ezagunenaren estribilloak baino. Nahigabe ari da gertatzen musika, akaso ez dakigulako nora goazen. *Zer egin?* berri bat behar dugu, artea ekintzarekin lotuko duena.

Artearen funtzioetako bat da, hain zuzen, ekintza sortzea. Espazioa irabazi dute, azken urteotan, promotoreek eta enpresen markek antolatutako espazio, erabat zaporegabeek. Ke Lepo entzuteko afterrak asmatu behar ditugu Euskal Herri osoan zehar. Edo gaztetxeak, noski. Diruak aginduko ez duen edozein gune, musikak musika baino askoz gehiago eskaintzeko aukera izan dezan. Burialek Londres irakurri zuen eran, irakur dezagun gure herria, eta noski: ehortzi. ●



Igel artean zintzarri bat

GORKA PEÑAGARIKANO KOPLAZALE ELKARTEA

Zikloi bat bainuontzi batean moduan, zurrunbilo biziotsuan murgildurik aritu ohi dira koblakariak oholtza gainean. Bertsolariak kantuan, musikarrien laguntzaz, zerbeza laten trapitxeotan, lau bat orduz-edo jartzea... bada luxua horrelako zita egonkorak izatea.

Gaztetxe berrian eta ohiko formatua berreskuratuta itzuli da Koplak Txapelketa. Lehengo edukiera kapazitate erdiarekin bada ere, eta kartela zertxobait apaldua ere bai, tradizioari etsitsa, sarrerak aise agortu dira. Hamar lagun kopletan eta beste lau musikan, eta eszenaratzeko ohiko soinu-banda, Rocky Balboa, Imanol Epelde eta Xabi Aizpuruaren banaka-banako aurkezpen apetatsuekin girotuta, boxeo-borrokarako izan ahal zuen bezala preparatu dira koblakariak zirtolari planean jartzeko. Koplek ematen dute aukera bizi jokatzeko, eta zirtoan aritzeko ez ezik, oilarkeriaz jokatzeko ere bai. Marrak hain dira norberaren arabera,

eta horiek nola unea heltzerako norberak irentsi dituen garagardoen eraginaren preso diren, ahapekako komentario eta eztabaida ederrak sortzen dira ikuslegoaren artean. *Pasatu egin da* eta irribarre gaiztoko *ufff* luzeen arteko diferentzia batzuetan hain da lausoa...

Koblakariak nahiko igel portatu dira, batzuk nahiko satelite-edo, bakoitza beretik kantuan. Alaña Martin, esaterako, zenbaitetan giroan sartu gabe moduan ikusi ahal izan dugu, eta Jexux Mari Irazu, bada, zer esan: *Mec de la rue* eta *Flow 2000* gisako kontu hain garaikideak komentatu diren minutu batzuk egon dira... Igela zenbateraino galdu da bainuontzian? Izar momentua eduki du gero Aner Peritzekin, *Aritmetika arazoak* doinupean, Xabier Euzkitzez hizketan. Hor bai bere-berea duela epoka. Kantaldi ederra osatu du Aitor Bizkarrarekin ere, lapurren paperean jarri eta Hiruputzun azken hilabetean izandako lapurretaz mintzatuta.

XV. KOPLA TXAPELKETA

NON: Hiruputzu gaztetxean (Zarautz)

NOIZ: Abenduaren 22an.

KOBLAKARIAK: Aner Peritz, Oier Aizpurua, Alaña Martin, Jexux Mari Irazu, Etxahun Lekue, Aitor Bizkarra, Eneritz Artetxe, Maider Arregi, Joanes Illarregi eta Oihana Arana.


Aita San Miguel, Bi neska zahar edo *Compostelako erromesa*-ren doinuek alaitzen eta pasatzen uzten dituzte, alajaina, perla eta perla arteko demas uneak. Zerbait orokorki gogoratzekotan Bizkarraren eta Peritzten kantaldi bat izango da, Laboaren gorpuzkeran eta kantaeran jarrita, *uf*, *af* eta *ño* dezente batzuk entzun baitira tentsio puntu bat baretzeko algaren artean. Bien arteko etorriak, joanak eta jarioak baretu dira, ordea, buruz burukora heldu direnerako. Ez oso ezberdin abestu dute Palestinaz ganbarako lanean, eta parez pare jartzean ere ez dira bereziki luzitu. Kanpotik, itxuraz, ez dute gehiegi disfrutatu.

Koplaldi sakonik ez du nahi entzuleak parranda testuinguruan, eta publikoak du boto-papera, publikoak erabakitzen du nori eman zintzarria. Edizio honean garaile Zarautz gorrotatzera heldu izan dela aitortu duen etxeko bat: Aner Peritz. ●



Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1						█									
2					█										
3									█						
4		█								█					
5	█					█									
6					█										
7								█							
8							█								



EZKER-ESKUIIN:

- 1. Airean higituz. / Zaude. 2. Zerbait norbaiten esku ezarri. / Zenbait musika notaz esaten da.
- 3. Prestaera. 4. Arratsaldeko otordua. 5. Lo-belarraren buruetatik ateratzen den droga. / Ibilgailu, auto. 6. Haurra. / Liskarti. 7. Zentzumen. / Euskal mitologiako izakiak. 8. Landare bati adarrak ebaki. / Makila ukaldika.

GOITIK BEHERA:

- 1. Ertz, bazter. / Nafarroako herria. 2. Emakume. / Ei. 3. Bilakaera. 4. Kezkatu, arduratu. 5. Ukamen. / Islandiako domeinua. 6. Emakumezko izena. / Erne. 7. Zerbait zerraz ebaki. 8. Baztango herria (argazkian). 9. Modu atzizkia. / Zatia, puska. 10. Bihi, garau. / Burdinolak. 11. Muin, funts.
- 12. Hegazti mota. 13. Bakoitzak bat. 14. Asiako estatua. 15. Zernahi gai likatsua.

Sudokua

ERRAZA


		5	8	7	3	2									
1					6	4	9								
4		7				8									
				1	5		7								
5	2	1			9		6	4	3						
7				4											
2	4	3	6			9	8								
6		5	3	8	1			9							
8	1		2		5	3	6	7							

ZAILA

			7							1	3				
					4	9				5	8				
2	8									7					
							8	5			6				
			1											4	
8	5			7					3						
7	1			3	6					9					
3				8					4	6					

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



AK █ B I S E
E █ E N █ E
T █ P O █ N █ I █ O R █
A T █ N █ █ I █ M █ Z █
A █ T █ Z █
T E A █ D O █ J O A █

Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

- Mardul
- Adineko gizona
- Europako moneta
- Aldarte
- Lurpeko tren
- Geldoa
- Ahul
- Atsegin
- Oso erabateko
- Zerealen zurtoin
- Hizketa berriketa
- Burusoila karsoila
- Trankil bare

GUREN
LASAI

EBAZPENAK

- LASAI
 - SOLA
 - SOLAS
 - LASTO
 - TOTAL
 - LAKET
 - MALET
 - MOTEL
 - METRO
 - UMORE
 - EUROA
 - AGURE
 - GUREN
- ANAGRAMAK**
- JOATEAN
 - ETORTZEAN EDO
 - BISITAK POZ EMATEN.
- ESAERA**

7	9	1	4	6	7
3	9	2	8	5	1
7	1	4	3	6	3
8	5	6	7	4	7
6	3	1	6	7	5
4	7	1	2	7	2
2	8	5	6	3	6
2	8	5	6	3	6
7	9	6	3	4	1
2	8	5	6	3	4
1	2	3	4	5	8
9	6	8	5	1	3
5	4	7	2	8	6

ZAILA

8	1	9	2	4	5	3	6	7
6	7	5	3	8	1	2	9	4
2	4	3	6	7	9	8	5	1
7	9	6	4	2	3	1	8	5
5	2	1	8	9	7	6	4	3
3	8	4	1	5	6	7	2	9
4	6	7	9	1	8	5	3	2
1	3	2	5	6	4	9	7	8
9	5	8	7	3	2	4	1	6

ERRAZA

- ESKER-ESKUIIN: 1. HEGAN, ZARA, 2. EMAN, BEMOL, UMEA, ATRALAKARI, 7. SENTIDU, LAMINAK, 8. INAUSI, MAKILAKA.
- GOITIK BEHERA: 1. HEGI, USI, 2. EME, OMEN, 3. GARPEN, 4. ANTSIATU, 5. UKO, 15. BEA, ADI, 7. ZERRATU, 8. AMAIUR, 9. RO, ATALA, 10. ALE, OLAK, 11. MAMI, 12. OKIL, 13. BANA, 14. IRAK, 15. LIKA.
- 3. GERTURIA, 4. ASKARIA, 5. OPIO, AUTOMOBIL, 6. UME, ATRALAKARI, 7. SENTIDU, LAMINAK, 8. INAUSI, MAKILAKA.

Dorleta Kortazar Alkoz

ISILDUEN AHOTSA



KONTALARITZAZ

“Autoestimuairekin gatazka bat dugu, jende aurrean zerbait egiten dugun guztiok. Oso lotsatiak izan arren, oholtza gainean edo edonon publiko aitzinean jartzen garenean, zerbait pizten da gure barrenean. Lotsa gainditu, beldurra uxatu, eta magia pizten zaigu barruan, eta gozaten hasten gara”. Formakuntza ugari eta etengabekoa egitearen aldekoa da Kortazar, “nik ikasi egin dut kontatzen hasi aitzin eta ikasten segitzen dut. Ikastaroa non, ni han”. Zer eta nola kontatu, hurbildu denari ahalik eta onena eskaintzea, kontu serioa da Eskoriatzako alabarentzat.

“Ipuinek aukeratzen gaituzte kontalariak, eta ez guk ipuinak”

Kortazarrek argi du bera izan arren ipuin kontalaria, entzulea dela bidaiaria. Entzulea da fantasiaren munduan sartzen dena eta hasieran ez bezala ateratzen dena. “Nik publikoa aretotik ezberdin ateratzeko asmoz kontatzen dut. Nik neuk horrela maite dut ateratzea ipuin-entzule arrunta naizenean”. Euritik babesteko, terraza batean eserita, kafe bat hartuz kontatu digu Kortazarrek kontalaritzaren bere historia.

 AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Noiz hasi zinen kontalaritzan?

Aski berandu heldu da nire bizitzara, eta gainera kasualitatez. Krisi gogor bat pasatzen ari nintzen 30 urteren bueltan. Ez nekien zertan ari nintzen, ezta zer egin nahi nuen ere. Noraezean sentitzen nintzen. Ametsik betetzeko ote nuen gogoetatzen ari nintzela, haurtzarora bidaiatu nuen. Txalo zaparrada artean topatu nuen nire burua, jendea nirekin batera irriz ari zela, antzerki txiki bat egin berritan. Begiak itxi, eta oraindik oso bizi-rik dut sentipen hura. Kasik hiru hamarkada geroago, hori egin nahi nuela sentitu nuen.

Virginia Imaz, clown eta ipuin kontalaria deitu nuen, ikastarorik martxan zuen jakiteko. Ipuin kontalaritzan murgiltzeko hilean behineko formakuntza bati ekitear zegoela esan zidan. Izena ematera animatu nintzen. Igandez elkartzen ginen, egun oso bat pasatzen genuen taldean elkarrekin. “Hasi beharko duzu, errepertorioa ez zaizu falta”, esan zidan halako batean Virginiak.

Eta neuregan askorik sinistu gabe ekin nion ipuin kontalaritzari.

Krisi batek eraman zaitu horretara, baina formatzen segitzen duzu.

Nire buruarekin bat egin nuen berriz, eta formakuntzak ematen didan barne segurtasunari heldu nahi izan diot hasieratik. Aukera dudan guztietan ematen dut izena ikastarroetan. Gogoa eta motibazio handia dut lanerako, beste norbaitekin elkarlanean jarduteko... Ikastea ez da ahalegina.

Zer behar da kontatzeko?

Nire ustez, ongi kontatzeko, publiko harrapatzeko, izan heldu, gazte ala haur, kontalariak argi ukan behar du zer kontatu nahi duen eta nola. Bere mezua argi eta ongi eraikia ukan behar du, eta ipuinarekin batera egiten du horretarako bidea. Azken batean, ipuina horretarako tresna da.

Eta zuk zer kontatu nahi duzu?

Une honetan, nire mezua osatzen ari



"Nik isilduei eman nahi diet ahotsa. Isilduak direnei. Sarri emakumeak dira nire kontaketen protagonistak. Horrez gainera, belaunaldikotasuna asko zaintzen dut".

naizela esango nuke. Nire ustez, garrantzitsua da ahots propioa ukatea, inoren kopia zarela sentitu gabe. Nik isilduei eman nahi diet ahotsa. Isilduak direnei. Sarri emakumeak dira nire kontaketen protagonistak. Horrez gainera, belaunaldikotasuna asko zaintzen dut. Oso garrantzitsua iruditzen zait jende heldua, adineko emakumeak, amonak, ikusaraztea, entzutea... Bidea erakusten diguten figura femeninoak ere, sarri erabiltzen ditut. Oihanak, adibidez. Ipuinak deskrimendurako bidaiak dira, eta bidaietan ikasi egiten da. Nik entzutera datorrena bidaiak horren bidez harrapatu nahi dut, eta saiotik, etorri den bezala ez, bestela ateratzea nahi dut.

Ipuinak instrumentalizatu direla iruditzen zaizu?

Lehen, familian kontaktzen ziren ipuinak. Ahoz aho transmitituriko ipuinak ziren, ipuin tradizionalak. Belaunaldi ezberdinetako jendea elkartzen zen suaren bueltan, istorio bera entzutera. Hainbat geruza dituzte ipuin tradizionalak. Gainera,

pertsona bakoitzarengan ezberdin eragiten dute, sentsazio eta erreakzio diferentek probokatzen dituzte. Pentsatzen dut gauza bera gertatuko dela bestelako adierazpen artistikoetan. Bizitzako momentuaren arabera, ipuin berak ezberdin eragin ahal digu. Egungo jendarte ereduaren presioa ere heldu da ipuinetara, eta, badirudi, ipuin bat entzuten edo irakurtzen ari garenean, zerbait sentitu behar dugula, gure baitako zerbait eraldatu behar dugula, eragin egin behar digula. Ni ez naiz horren aldekoa. Ipuinak gozamenarako dira, bidaiari murgiltzen hasten garenean jaisten ditugu gure hesiak, kentzen ditugu maskarak, eta orduan iristen zaizkigu zinezko sentsazioak. Lotura pertsonal horretara heltzea lortzen dugunean, une horretan bai, eraldatzaileak dira ipuinak. Emozioak kudeatzeko, haserrea lantzeko, jelsiaz hitz egiteko... ipuin berariazkoak modan daude, baina ez dut horiek kontaktzea atsegin. Nik sinisten dudana ipuingintzak ukitzen ditu esparru horiek denak. Ipuinek bizitza bera kontaktzen dute, azken batean.

Haur, nerabe eta helduentzat kontaktzen duzu.

Azken hilabeteetan gogoetan murgildurik nago, eta oraindik erantzun garbirik ez badut ere, esango nuke ezberdin kokatzen naizela publiko bakoitzaren aurrean. Ipuin ezberdinak kontaktzen ditut, noski, publikoaren adinaren arabera. Asko atsegin dut, berez haurrentzat diren ipuinak helduei kontaktzea. Oso erreakzio politak sortzen dira. Egia da, ez direla ohiko saioak eta etortzen den jende kopurua oso murrizta izan ohi dela. Izan ere, haurtzarora mugatzen dugu ipuingintza, eta pena da. Heldu izanik ere, asko dugulako entzuteko, entzuten gozatzeko, eta baimen hori eman behar genioke gure buruari. Helduak prestutasuna behar du entzule izateko, helduaroak ere gozamenetik asko behar duelako. Egia da etortzen direnek errepikatu egiten dutela. Lehen aldian, espero ez zuten zerbaitekin egin dute topo. Magia dirudi, baina esango nuke ipuinek aukeratzen gaituztela kontalariak, eta ez guk ipuinak. Askok izan ohi dugun sentsazioa da. ●

Macron, Depardieu eta anti-wokismoa

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

azko abenduaren 20ko goizean France 5 telebista kateko *C à vous* saioko taldearekin bildu zen Emmanuel Macron, arrats hartan bertan egin behar zioten elkarrizketaren edukiak adosteko. Eta kontu bat argi utzi zuen: “Depardieurena egin behar da”. Frantziako presidentea eskatuta hitz egin zuten, beraz, Gérard Depardieu aktorearen kontrako bortxaketa salaketaz 3,3 milioi ikusleren aurrean. Goi-mailako politika putzu septiko bihurtzen duten kontu asko gurutzatu ziren, mendea eta segundua bezala, leku horretan.

Kasua jarraitu ez dutenentzat: *Mediapart* hedabideak publikatutako artikulua-sorta bati esker ezagutu dira 2004tik 2022ra errodatutako hamaika filmetan Depardieuk hamahiru emakumeri egingako sexu-erasoak. Geroztik salaketak ugaritu dira eta urtetan beste aldera begira egon direnen memoria ere freskatzen hasi da. Horri esker jakin dugu askok –nik konkretuki *Le Figaro*-ren artikulua baten bidez, zeinean eguraldiaz bezala ari ziren kontu hauetaz– 1990eko hamarkadan bere karrera amerikarra etetearen arrazoi nagusia gaztetan egin zituen bortxaketei buruzko adierazpenak izan zirela; Sophie Marceauk harrapakari sexualtzat jo zuela; eta kasik atzo goizean, 2020an, epaitegietara eraman zuela Charlotte Arnould aktoreak ere. Bortxaketagatik, nola ez. Pastelari ginga France 2 kateko *Complément d'enquête* ikerketa-programak jarri zion abenduaren 7an, aktorearen zenbait irudi erakutsiz, bost urte lehenago Ipar Korean grabatuak, zeintzuetan aktorea etengabe ari zen emakumeei buruzko iruzkin sexualak egiten, tartean poney bat zamalkatzen zuen adin txikiko neska bati buruz.

Eta goroztegi hori ikusirik, Macronek dio: “Erdi-erdira egin nahi dut salto biluzik”. Inork espero bazuen Depardieuren atzaparretan eroritako biktimen alde



SIEBBI/CC-BY

hitz egingo zuela, ez dute ezagutzen zinemismoa jariatzen duen organoa ze indartsu daukan Frantziako presidentea. Aktorearen “miresle handia” dela esan zuen gaia mahai gaineratu eta berehala. Gero haren kontrako “ehiza” salatu zuen, baita aukera probestu ere Frantziako Kultura ministro Rima Abdul Malaki zuzenean belarritik tira egiteko. Ez azken honen urtebetetzea zelako, baizik eta adierazi berria zuelako ikusitakoak ikusita –eta ikusitakoek ekarri dituzten urakan, zirimola eta traganarru mediatikoak–, agian aztertu beharko litzatekeela Depardieuk 1996tik paparrean daraman Frantziako Ohorezko Legioa bertan behera uztea.

Eliseoko azeria larri dabilen oilar kankailua salbatzen: lagunak dira ala? Bai zera. Kutreagoa da asuntua. Edo kalkulatuagoa behintzat. Antza denez,

Frantziako iritzi-giroa neurtzen duten inkestek gauza bat erakutsi diote Macroni azkenaldian: adin batetik gorako boto-emaleek ez dutela ezer jakin nahi *woke* usaineko ezertaz –feminismoa, LGTB+ kolektiboaren eskubideak, anti-arrazismoa...–. Eta publiko horrentzat Depardieu, 75 urte, Eiffel dorrea forratzeko aski izango liratekeen sexualituei buruzko paperak epaitegietan, ikono anti-woke erabatekoa da.

Jokaldia beraz, den bezain miserablea izanda, *realpolitik* lezio bat ere bada: botoen merkatuan zeozer berria eskaintzea baino, dagoen eskaria asetzea da auziaren iltzea. Eta badirudi, Parisen eta beste leku askotan, 1960ko eta 70eko hamarkadetan parranda ideologiko itzela egin zuen belaunaldiaren ajeek negozio politikoa baldintzatzen dutela oraindik. ●



AMILLUBI LURRA TAUPAKA



Gipuzkoan, Urola ibaiaren meandroan, 90.000 m² lur erosiko ditu Biolurrek kolektiboan, laborari agroekologikoek lurrak izan ditzaten eta herritarrok elikagaiak.

Denon laguntza behar dugu: Babestu Amillubiko metro koadro bat lur. Informazio osoa eta ekarpena egiteko aukera:

www.amillubi.eus

Biolur

Gipuzkoa

+ 27 eragileren babesarekin

Arkaztertzu Ekologikoen Aldeko Elkarre

**LURRA
HERRIARI
DEIKA**



AKTIBATU ZURE LAGUNTZAK!

Aurten ere, Eusko Jaurlaritzak enpresei laguntza emango die **2024ko ENPRESENTZAKO Laguntza Plan** berriarekin.

Euskal ekonomiaren motorrarentzat, Euskadiko ENPRESENTZAT, zuzeneko laguntzak.

Sakatu lehiakortasunaren eta berrikuntzaren etengailua zure enpresarentzat, aktibatu zure laguntzak.

Oso ENPRESAzaleak gara!

+80 laguntza-programa

+600 milioi euro

Informa zaitez

WWW.EUSKADI.EUS/EKOGARAPENA · WWW.SPRI.EUS/EKOGARAPENA

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO